


DONOSTIAKO BERDEA

PARKE ETA LORATEGIEN GIDALIBURUA



LORATEGIAK ETA PASEALEKUAK


1. KONTXAKO PASEALEKUA
2. ALDERDI EDER + IBILBIDEAK
3. BULEBARREKO PASEALEKUA
4. GIPUZKOA PLAZA
5. OKENDO PLAZA
6. FRANTZIA PASEALEKUA + IBILBIDEAK
7. ARABAKO LORATEGIAK ETA MENDEURRENAREN PLAZA
8. ONDARRETA KO LORATEGIAK

PARKEAK

9. ZUBIMUSU
10. MIRAMAR + IBILBIDEAK
11. KOLDO MITXELENA
12. PAGOLA-DAMAZELAI
13. LUIS VILLASANTE
14. MIRAMON + IBILBIDEAK
15. BASOERDI
16. SERAFÍN BAROJA + IBILBIDEAK
17. PUJO
18. AIETE + IBILBIDEAK
19. LAUAIZETA
20. URUMEA IBAIKO PARKEA
21. OROIMENAREN LORATEGIA
22. CRISTINA ENEA + IBILBIDEAK
23. LARRES
24. ARRIAGA
25. ARROBITXULO
26. AMETZAGAINA + IBILBIDEAK
27. ULIAKO MINTEGIAK
28. SALVADOR ALLENDE

MENDIAK

29. ULIA + IBILBIDEAK
30. URGULL + IBILBIDEAK



DONOSTIAKO BERDEA

PARKE ETA LORATEGIEN GIDALIBURUA





Zuhaitzek pentsamendu ugariak, artatsuak eta nareak dituzte, eta gu baino bizitza luzeagoa. Gu baino jakintsuagoak dira, entzuten ez ditugun bitartean. Baina zuhaitzak entzuten ikasten dugunean, gure pentsamenduen umetako laburtasun, azkartasun eta bizkortasunak aurrekaririk gabeko bozkarioa eskuratzen du. Zuhaitzak entzuten ikasi duen hark, dagoeneko ez du zuhaitz izatea desio. Den hori izatea baino ez du desio.



Lorategi baten ondotik pasatzekoan edo parke bateko banku batean eserita nagoela belar moztu berriaren usaina hartzea plazer handia da niretzat. Zaila da zer sentitzen dudan esatea, baina purifikatu, sendatu egiten nauela iruditzen zait; eta naturak hirian duen presentzia gogorarazten dit, naturaren eta hiriaren arteko lotura, berdearen eta asfaltoaren grisen artekoa.

Gure hirian, Donostian, biztanle bakoitzeko 21 m² berde dugu: OMEk bizi-kalitatearen adierazletzat jartzen duenaren halako bi! Guztion esku dagoen altxor indibiduala eta kolektiboa, gure arbasoengandik oinordetzan hartu duguna, batzuetan, gure garaian sortu ahal izan duguna, beste askotan, eta ondorengo belaunaldiei herentzian utziko dieguna.

Mendiak, basoak, parkeak, lorategiak, kale eta plazetako berdeguneak; handiak, txikiak, itsasotik gertu, ibaiaren ondoan... hiri osoan, auzo guztietan da Donostiako berdea. Oso berde donostiarra da, bizia, freskoa, argitsua, ihintz eta kresal tantekin dir-dir egiten duena; eta Donostiako parke eta lorategien gidaliburu honetako orrialdeen arnasean ere hartzen dena eta haiek ezagutzera, paseatzera, botatzen duten usaina hartzera, gozatzera eta... zaintzera gonbidatzen gaituena.

Izan ere, jabetu egin behar dugu gure hiriak zer ondare bikaina duen natura aldetik, eta zenbateko garrantzia duen Donostiako berdeguneak ezagutu, daukaten balioa aitortu eta haiei kasu egiteak. Modu aproposa izango da hiriaren garapen jasangarriarekin eta klima-aldaketaaren aurkako eguneroko borrokarekin daukagun konpromisoa erakusteko.

Gozatu Donostiako berdeaz!

MARISOL GARMENDIA BELOQUI
**EKOLOGIAKO, OSASUN PUBLIKOKO,
GARAPEN EKONOMIKOKO ETA ENPLEGUKO ZINEGOTZIA**



KONTXAKO PASEALEKUA

Alderdi Ederren eta Miramar parkearen artean den lorategi-pasealeku honek badiaren puska on bat inguratzen du, eta leku aproposa da paseo eder bat egiteko, oinez edo bizikletaz. Milazken artean sakabanatuta diren bankuetatik, berriz, ikuspegi bikaina dago Santa Klara aldera, itsasoaren urdinean den uharte aldera. 1916an Juan Rafael Alday arkitektoak sortu eta aspaldian hiriaren ikur den baranda dotorearen beheko aldean Kontxako hondartza dugu. Jende asko biltzen den hondartza da. Bi obelisko ditu sarreran, alde batean bat eta bestean bestea. Barometroa du batek eta erlojua besteak.

Pasealekuaren mutur batean, Cervantes plazako lorategiak daude, On Kixoteren eta Santxoren eskultura buru dutela. Lorenzo Coullaut Valerak egina da hura, eta orain dela gutxi, Zigor Garciak egindako brontzezko altxagarri bat ere jarri diote, Kantauri itsasoan diren aniztasunaren alegoria egiten duena.

Eta hondartzaren ertzean den La Perla talasoterapia-zentroak, berriz, etengabe gogorarazten digu Isabel II.ak zergatik aukeratu zuen Donostia bainu hiri izateko.

ALDERDI EDER

Donostiako estanparik tipikoena izango da, seguruenera, Udaletxearen eta Kontxako badiaren aurrean den hau.

Pierre Ducassek 1885ean diseinatutakoa den arren, Donostian diren lorategi historikoetan aldaketarik gehien izan duenetako bat da. Gaur egun lorategi angeluzuzenetan eta lore-multzo ikusgarritz jositako parterre geometrikoetan antolatuta dago, eta gozatzeko gonbit egiten du, ondo egin ere. Bestalde, Palmondo kanariar jori askoak ere badiren arren, milazkak dira hango zuhaitzik berezienak, haien enbor bihurritu, adar malgu eta kolore arrosa argiko loreekin. Jendeak “tamarindoak” esaten die, baina ez daukate batere zerikusirik Afrika erdialdeko zuhaitz harekin. Ekaitzaren kontra gogorrak zirelako sartu zituzten, eta hiriaren ikur bihurtuta ditugu orain.

Alderdi Ederrek badu pergola gun e lasai bat ere.

Azulejuzko urmael iturriduna, Jose Maria Salaberria idazlearen bustoa eta lehoi eskultura batzuek daude han.

Lehoiak urmaela zaintzen ari direla ematen du. Eta haurrentzako jolastokiaren ondoan den zaldiko-maldiko erromantikoak, berriz, belle époque garaiko oroitzapenak dakartzkigu.

Kultura-ekipamendua
UDAL LIBURUTEGI NAGUSIA



KONTXA- ERDIALDEA IBILBIDE ERROMANTIKOA

Alderdi Ederreko lorategi-
etan hasten da ibilbidea,
Aitor Mendizabal artistaren
OROIMENA—MEMORIA 1
eskulturaren ondoan. Lau
metro altuerako monolitoa da,
2007an terrorismoaren eta
indarkeriaren biktimen ome-
nez jarri zena. Monolitoaren
kolore berdexkak eta haren
brontzeko eta kobrezko
lerro bertikalek, berriz,
inguratzen duen landaredia-
rekin hizketan ari direla ema-
ten dute, batez ere kanariar
palmondoekin (*Phoenix cana-*
riensis) eta palmondo nanoekin
(*Chamaerops humilis*).

Haren inguruan, berriz,
MILAZKA (*Tamarix gallica*) mordo
bat; izan ere, 1885ean sartu-
tako arbola dugu milazka,
inguru horretako lorezaintzari
irtenbide bat emateko, horko
haize eta gazitasun baldintzak
ez zirelako egokiak beste
landare mota batzuentzako.

Gaur egun, hiriaren ikono
bihurtu da, nahiz eta. Izatez
zuhaixka denez, denbora
dezente behar duen hazteko,
eta baita arreta eta inaus-
keta etengabea ere zuhaitz
itxura emateko.

Toki hau utzi baino lehen,
ederra da badiaren ertzean
den pasealeku guztiari be-
giratzea. Hor ikusiko ditugu
Alderdi Eder, Kontxako
lorategiak, Miramar parkea
eta, azkenik, Ondarretako
lorategiak.

Ibilbideari jarraitu eta aurre-
aurrean dugun hareharritzko
eraikin monumental aldera
egingo dugu. **UDALETXEA 2**
da orain, baina 1887an
inauguratu eta Kasino Handia
izan zen lehen. Eskuinetik
inguratzen badugu, oraindik
ere ikusten da Gerra Zibilean
botatako tiroek egindako
zulo mordoia, herri milizien eta



militar matxinatuen arteko liskarretan egindakoa.

Eskuinetara jotzen badugu, berriz, Bulebar zumardira iritsiko gara. Oinezkoen-tzako toki luze bat da, Donostiako Parte Zaharra eta hiria-erdigunea lotzen dituen. Aurre-aurrean, eremu diafano bitxia ageri da, tamaina handiko zuhaitzez inguratuta: **PLATANOAK** (*Platanus x hispanica*) eta **ZUMARRAK** (*Ulmus spp.*), batez ere. Ugartemendia plaza dugu, 1883an erabat erre eta gero Parte Zaharraren hiri trazadura berreraikitze-ko diseinua egin zuen arkitectoari eskainia. Zenbait koloretako granitozko lauzek leial asko erreproduzitzen dute jatorrizko proiektuaren planoak: **OKTOGONO ITXURAKO PLAZA** 3 eta zortzi kale, plaza hartatik ateratzen zirenak. Herritarrak konfigurazio

berri haren kontra izan ziren, ordea, eta proiektua ez zen aurrera atera.

Ibilbideari jarraitzeko 1907ko musika kioskoa inguratu behar dugu. Oinplano obalatua eta lerro finak dituen kioskoa dugu. Izan lurra baino goraxeago diren eta urte guztian kolore askoko loreak izaten dituzten lorategi poligonal artean aurrera eginez, Bulebarraren erdira iritsiko gara. Zuhaitzen hostotza itxiaren itzalak babesturik diren banku inguru batera ailegatutakoan, bidearen beste aldera pasatu eta Elkano kalera jo behar dugu. Oinezkoentzako alderdia da, harri iluneko gal-tzadarria eta **APAINDURAZKO UDAREONDOZ** (*Pyrus spp.*) osatutako bi ilara dituen. Txorko borobiletan sartuta daude udareondoak, eta kolore biziz janzten dira udaberrian.



Oinez segi eta berehala ailegatuko gara **GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN** 4 jauregiko sarrera dotorearen parera. Arkupedun eraikina dugu Aldundiaren jauregia, 1885ean egina, Bigarren Inperioaren estiloan. Frontoiaren goialdean, Gipuzkoako bost pertsona ospetsuren bustoak nabarmentzen dira, harri ilunez eginak: Andres Urdaneta, Juan Sebastian Elkano, Antonio Okendo, Blas Lezo eta Miguel Lopez Legazpi dira. Haien gainean, probintziaren armarrria dago, ondo nabarmen.

Ezkerretara jiratzen badugu, Gipuzkoa plazako lorategietan sartuko gara, eta berehala konturatuko gara zer kutsu intimo eta atsegin duen hark.

Lehen planoan, **ARAUKARIA** (*Araucaria araucana*) ale eder bat. Ondoan eta buelta guztia metalezko hesi batez ingurututa duela, marmolezko mahai bitxi bat dugu. **ORDU MAHAIA** 5, edo konparazio erlojua, da, 1879an jarri eta 2015 urtean berritu zena, Donostiako orduaren eta munduko beste hiri batzuetako orduaren arteko aldea jakiteko modua ematen duena. Ezkerrean, ondo zaindutako belar lorategian, lore multzoz inguratuta, Jose Maria Usandizaga musikari donostiarraren monumentua dago, 1916an inauguratua. Emakume baten figura ere badu monumentuak, inspirazioaren alegoria gisa.

Lorategi artean jarraitzen du paseoak, eta apaindura ar-bola ugari ikusiko ditugu han: haginak, astigar japoniarrak, palmondo barietate batzuk, garo zuhaitzak, eta abar. Arku itxurako zubia pasatu eta ur-lasterraren beste aldekoa igaroko gara. Zubiaren azpian txanpon batzuk ikusiko ditugu, dir-dir eginez, bota zituztenen desioak betetzeko esperantzan edo.

Haren aurrean, harrizko tenplete bat dago, **METE-REOLOGIA ZUTABE 6** landua kanpoko girotik babesten duena. Elementu berezi hori Jose Otamendi irakasle eta geografoak eman zion hiriari. Garai hartako neurgailu batzuk ere baditu zutabeak, Parisen eginak neurrira, eta baita inskripzio geografiko eta astronomiko batzuk ere.



Ibilbideari jarraituz gero, garai batean ziren zortzi ateetako bat zegoen tokitik utziko dugu parkea, burdinurtuzko hesi artistikoa baintzuen hasieran parkeak. 1907an Uliako mintegietako parkera eraman zuten, eta han segitzen du orain ere. Aurrean, Camino kalea ageri da, **MARIA CRISTINA 7** luxuzko hotelera iristeko aukera ematen duena. Maria Kristina erreginak berak inauguratu zuen hotela 1912an, eta erreferentzia puntu handia izan zen Europako goi-mailako

gizartearentzat belle époque garaian. Bitxia bada ere, C letraren forma duen gaur egungo oinplanoa joan den mendeko berrogeita hamarretako hamarkadan egindako handitze bati zor zaio, hegal bat osoa erantsi zioten orduan eta.



Hotelaren sarrera nagusiaren parean parterre bat dago, lore konposizio eta palmondo batzuekin. Azkenean, Oken-do plazatik oso gertu, **TOMAS GARBIZU 8** musikari eta konpositorearen oroimenezko monumentu xumea dugu.

Gure ibilaldia egin eta gero, atsedean hartzeko modua emango digute lorategi-plaza zabal honetako eserlekuek; **ANTONIO OKENDO 9** almirantea zain dugula, betiere, bere monumentuan tente asko jarrita. Aurrean, Urumearen ibilguaren azkeneko tartea baino harantzago, **KURSAAL 10** biltzar areto eta auditoriumaren kubo handiaren soslai izugarriak paisaia guztia hartzen du. Arkitektura multzo hori Rafael Moneok proiektatu eta 1999an inauguratu zen; baina, garai batean, Donostiako Gran Kursaal Marítimo kasinoa izan zen orube hartan.



BULEBARREKO PASEALEKUA

Oinezkoentzako gune handi bat da, hiriko alde erromantikoa eta Parte Zaharra lotzen dituen. Erregina Erregenteko lorategiekin du segida naturala. Hangoak ere badu urmaela, eta harrizko eskailera batzuk erdialdea igotzeko, goraxeago baita hura. Bulebarrean natural–natural elkartzen dira parterreak apaintzen dituzten lore–multzoen koloreak eta zuhaitz hostozabalen itzala, eta oso toki lasaia eratzen dute bien artean, eguneroko bizitasunaren aldean txoke egiten duen toki lasaia. Garai batean Kasino Handia izan zena, Udaletxea dugu gaur, eta haren aurreko aldean dugu musikako kioskoa ere, estilo modernistakoa, zuhaixka apaingarriz inguratua.

Hiribide honen izena euskarazko 'bastioi' frantsesera hitzez hitz itzultzetik dator; izan ere, toki horretan baitzen garai batean hiria inguratzen zuen harresia.

Hala, Bretxako azokaren aurreko aldeko zoruan, lauza gorrixka batzuk daude jarrita, gotorlekua non zen adierazteko. Eta oraindik ere ikus daitezke haren oinarriak lur azpiko aparkalekuaren barruan.

GIPUZKOA PLAZA

Toki berezia da, zinez, hiriaren erdigunean bertan den toki hau, eraikin arkupedunez inguratua. Lorategiak Pierre Ducassek diseinatu zituen 1877an, eta sartuta diren zuhaixkak, zuhaitzak eta landare apaingarriak Aieteko eta Cristina Eneako finketatik ekarritakoak dira, Bailen eta Mandas dukeek emanda.

Gaur egun, xarmaz eta erromantizismoz betetako oasia dira lorategi hauek. Lore-multzoak eta zuhaitz bereziak dira, eta baita ondare elementu garrantzitsu batzuk ere;

Jose Maria Usandizaga musikari donostiarraren monumentua (Jose Llimonak egina), Pierre Ducasseren omenezko plaka (inaugurazioaren mendeurrenean jarria), zutabe meteorologikoa eta ordu mahaia, esate baterako.

Erdi-erdian urmela dago. Ur-jauzia (garai hartako lorategi paisajistek oso ohikoa zuten elementua) eta laku txiki bat ditu, beltxarga eta ahate batzuekin, haurren gozagarri. Egurrezko zubi polit batek, berriz, korrontearen beste aldera pasatzeko modua ematen du, lorategien beste aiekara.





OKENDO PLAZA

Victoria Eugenia Antzokiaren eta Maria Cristina Hotelaren artean den lau angeluko tokia hartzen dute lorategi dotore hauek. Bi piezaz osatuta daude. Estetika aldetik, ordea, bat bera dira. Okendo kalearen ondoan dagoena forma geometrikoko parterre bat da. Soropila beti ondo zaindua eta urteko garai bakoitzean halako lore-multzo batez apainduta izaten da. Lau ertzetako bakoitzean palmondo kanariar lerden bat dago.

Urumea ibaitik gertuen den piezak, berriz, forma obalatua du, eta lore-konposizio asko izaten ditu, Antonio Okendo almirantearen monumentuaren bueltan. 1894an inauguratu zen estatua, eta altxagarri garai baten gainean jarrita dago, almiranteak bere jaiotetxea ikusi ahal izateko: Manteo baserria, Grosekoa. Zokaloa armarriz eta blasoiz apainduta dago, eta haren balentria militar batzuek irudikatzen dituzten behe-erliebeak ditu.

1902an inauguratu zituzten lorategien ondoko antzokia eta hotela. Hotelaren fatxadan bala zulo asko ikus daitezke, Gerra Zibilean militar matxinoak han gotortu zirenean egindakoak.

FRANTZIA PASEALEKUA

Urumea ibaiaren eskuinaldean dago, Santa Katalina eta Maria Kristina zubien artean, eta Donostian xarma gehien duen tokietako bat da. Bi zuhaitz ilara ditu, usain gozoa botatzen duten ezkiak dira, gehienak, batere lore multzorik ez duen belarrezko parterre luzearen alboetan jarriak. Soropilaren gainean elementu apaingarri batzuk ikus daitezke; esate baterako, Dantzarien eskultura-multzoa, Wallacen iturriak (galdaketakoak) eta hormigoizko zutabea, gainean esfera bat duena eta garai batean ur zorrotada batzuk botatzen zituen. Lorategi hauek frantziar kutsu garbia dute, banku ugari dituzte eta haietan edo errekaen ertzen den petrilean eseri, petrilaren gaineko barandaren kontra jarrita, eta atsedean hartzeko modu ona ematen dute.

Norteko Geltokiaren parean, zabaldu egiten da pasealekua: plazatxo bat dago, legarrezko zoruduna, marmolezko iturri estetiko bat erdi-erdian duela. Bainuontzia zirkular bikoitz batean gainean, zutabe bat du hark erdian, ura botaz handik behera. Gorputz nagusia fruta girlandaz eta haur biluziz apainduta dago.



AMARAKO IBILBIDEA, URUMEAREN ERTZETIK

Ibilbidea San Katalina zubitik gertuen den Frantzia pasealekuaren muturrean hasten da. Kolore biziko lore-konposizioz inguratutako parterre triangeluar batean, **DANTZARIEN** 1 eskultura dago, marmolez egindako lan anonimo bat. Hiru gazte panderoak eta kriskitinak joz irudikatzen ditu. Puntu horretatik abiatuta, lorategiz hornitutako etorbide zabal bat dugu, Urumea ibaiaren eta 1912-1935 artean egindako jauregi estiloko etxe dotore batzuen artean pasatzen dena.

Erdiko belardi luzearen bi aldeetan, **EZKI ILAUNTSUZ** (*Tilia tomentosa*) eta **EZKI HOSTO ZABALEZ** (*Tilia platyphyllos*) egindako bi ilara dira. Itzala ematen dute udan, eta usain lasaigarria loretan direnean. Orain arbola galantak eginda dauden zuhaitz horiek, 1985ean zumarrak ziren tokian sartu-

takoak dira, grafiosiak jota zirelako haiek.

Pasealekuko hiru tokitan parituta, **WALLACEN** 2 hirurak iturri daude, berdín-berdinak hirurak. Burdinurtuz egindako pieza horien igoalak Europako beste hiriburu batzuetan ere badira. Richard Wallacek hiriari utzitakoak dira. Britainia Handiko filantropo bat zen Wallace, eta nazio guztien arteko adiskidetasuna zuen helburu behinena. 1872an Charles Lebourg eskultoreari eskatu zion egiteko, eta kariatide greko moduko batzuk egin zituen hark, ura zerion kupula dutela buruan.

Urumearen ertzean harrizko petril bat dago, bankutarako ere erabiltzen dena. **BURDINAZKO BARANDA** 3 landu bat du hark gainean, erronbo formako patroiz egina. Tartean-tartean, harrizko



zutabe batzuk ere baditu, loreontzia jarrita gainean. Baranda hori, eta Wallaceren iturriak, Kontxako pasealekuan ziren estreina. Baina, 1916an, Kontxan Juan Rafael Aldayk diseinatutako modelo berria jarri zutenean, Frantzia pasealekura aldatu zituzten.

Ibilbideak aurrera jarraitzen du, harik eta Norteko Gel-tokira iritsi arte. Han, eskuine-tara hartu eta **MARIA KRISTINA ZUBIA** 4 pasatu behar dugu. 1905ean inauguratu zuten gaur den zubia, hiria Groseko zabalgunearekin lotzen zuen egurrezko behin-behineko pasabidea kenduta. Zubi arranditsua da, eta lau obelisko monumental ditu -Parisko Alejandro III.aren zubikoak bezalakoak-, eskultura ikusgarri batzuk dituztela haiek gainean.



2

Tarte horretan guztiz bideratua dago Urumea ibaia, 1894an egin baitzituzten hormak. Paretaren harri artean, ordea, ez da harritzekoa itsasoaren eta ibaiaren eragin aldaketetara bereziki egokitutako landare espezie batzuk aurkitzea ere. **ITSAS MIHILUA** 5 (*Crithmum maritimum*), adibidez, paretako harri-zuloen artean zainak ematen dituen landarea da, kolore hori biziko loreak izaten dituena. C bitamina asko duenez, itsas bidaletan ere erabiltzen zuten

garai batean, eskorbutuaren kontra ona zela eta.

Zubia gurutzatu ondoren, ezkerrera egin behar da, eta Gernikako Arbolaren pasealekutik segitu ibilbideari handik aurrera. Etorbide



4

atsegina da: legarrezko hiribidea du erdian, eta espaloia haren alde banatan. Donostiako lauza berezia (hexagono itxurakoa) dute espaloiek zoruan. 1906an erabaki zuen Donostiako Udaltzatzen izen hori jartzea pasealeku honi, gaur desagertua dagoen Gernikako Juntetxeko **HARITZAREN** (*Quercus robur*) kimu bat landatuta mutur batean.

Aurrerago, estilo erromantikoko etxebizitza bloke batzuen artean, arrosa antzeko koloreko harritzko eraikin sendo bat dago, pasealekuak Larramendi kalearekin bat egiten duen tokian. Gaur egun ikastetxea da, baina San Jose zahar-etxea izan zen lehen, eta **EMAKUMEENTZAKO ESPETXETARAKO** 6 erabili zuten Gerra Zibilean, Ondarretako kartzela beteta geratu zelako.

Ibilbideak Mendeurrenaren plazan aurrera jarraitzen du. Biribilgune fresko bat da, eta **MARIA KRISTINA** 7 erre-
ginaren monumentua du. Mar-
mol zuriz egindako eskultura
da, Jose Diaz Buenok egina,
eta Leon Barrenecheak proiektatutako zirkuluerdi-formako
hareharritzko hormaz ingu-
ratuta dago, landare batzuk
dituela hark goiko aldean.
Multzo osoa 1918koa da, eta
bertako egunkari batek sus-
tatutako harpidetza herrikoiak
ordaindu zuen.

Lorategi eta zuhaitz apainga-
rrien arteko bide bihurri
batek galtzadaraino eramango
gaitu: zebrabide bat pasa eta
Mendeurrenaren plazak ja-
rraitzen duen tokiraino iritsiko
gara. Erdiko bide batek
bitan banatutako tokia da,
triangelu formakoa. Alde
batean, bi **MAGNOLIO** 8



ikaragarri (*Magnolia grandiflora*)
ditugu, kolore eta doto-
retasun handia ematen diote-
nak inguruari. Beste aldean,
Ricardo Ugarteren **ESTELA** 9
obra dugu, arbola txiki eta
zuhaixa batzuekin egindako
multzoaren buru. Kubo huts
margotu batzuk bata bes-
tearen gainean jarrita egin-
dako obra da Estela, Donos-
tiako Eskulturako Biurteko
Saria irabazi zuena 1969an.

Puntu horretan bukatzen da
ibilbidea. Hala ere, Antso
Jakitunaren etorbidean aurrera

ere segi daiteke paseoan,
PIO XII.AREN PLAZA eta haren
inguruko lorategiak bisita-
tzeko. Landare klase bat baino
gehiagoko berdeguneak dira,
erdian argi iturri handi bat
duen biribilgunearen bueltan
4.000 lore baino gehiago-
rekin apainduta direnak. Iturria
Kataluniako herriak oparitu
zion Donostiari 1966an.
Aurrean, hiru **SEKUOIA** handi
(*Sequoia sempervirens*) nabar-
mentzen dira, 2011n Peñallo-
rida Institutuko lorategitik
atera eta birraldatutakoak,
bota egin behar zituzten
bestela eta.



ARABAKO LORATEGIAK ETA MENDEURRENAREN PLAZA

2002an guztiz eraberritu zen, herritarrek parte hartzeko prozesu aktibo batean emandako ideia eta iradokizunetatik abiatuta. Zuhaitz-masa guztia –tamaina handiko ezkiak dira gehienak– lorategien perimetroan banatuta dago. Horrela, erdiko tokia (galtzada–harrizko zorua du) erabat garbi geratzen da jolaserako eta aisialdirako. Xake–taula handi batzuk ere baditu, harri naturaleko harlauzekin eginak; eta haurrentzako jolas gune bat baino gehiago ere bai. Bi solairuko dorretxo bat nabarmentzen da, txirrista galant batzuekin. Handik oso gertu, belardi handi bat dago, jolas librea egiteko, substratu naturalaren gainean.


Iparraldeko muturrean, berriz, lorategiek eta Gernikako Arbolen pasealekuak bat egiten duten tokian, Menduurenaren plaza zoragarria dago. Toki itzaltsua da, hango zuhaitzen hostotza trinkoari esker, eta forma kurbatuko parterrez eta landare hesiz osatuta dago. Erdian, Maria Kristina erreginari eskainitako eskultura–multzoa dago, 1918an eraikia, herritarrek emandako diruarekin.

ONDARRETAKO LORATEGIAK

Ondarretako hondartzaren luzera guztia hartzen dute, eta parterre geometriko batzuez osatuta daude, erdian den pasealeku baten inguruan simetriko jarrita haiek. Hala, tartean-tartean, pasealekua zabaldu eta biribilgune batzuk sortzen dira lorategietan. Parterreak landare-hesi batzuk dituzte itsasoaren brisatik babesteko. Belardiak ondo zedarrituta daude, burdin batzuk saskiak egiteko eran elkarri lotuta egindako apaingarri batzuen bidez, eta kolore biziko landare sailak eta drakaena eta palmondo multzoak dituzte. Bide eta hiribideetan sakabanatuta, banku eta iturri artean, ia bostehun milazka ditugu, beren enbor bihurritu eta adar malgu horiekin.

Erdiko biribilgunean, arte hostozabalen multzo batek inguratuta, Maria Kristina erreginaren monumentua dago.

Brontzeko estatua da, marmol zurizko altxagarri sendo baten gainean jarria, 1924an Alderdi Ederren zen Mendeurreneko eskultura-multzotik hara aldatua. Igeldoko hegaletatik gertu, Teniseko Errege Klubaren ondoan, Zeharki pieza dago, Jose Ramon Andak egina. 1982an Donostiako Eskulturako Biurteko Saria irabazi zuen pieza hark.





ZUBIMUSU

Ondarretako hondartzatik oso hurbil lekutzen den parke txiki hau Joaquín Montero arkitektoak diseinatu zuen, eta antzinako padurak zeuden koto berean kokatu zuen.

Ingurune hurbiletik sartzeko galtzada-harrizko bi malda igaro behar dira, aldi berean, jatorrizko bere izaera naturala indartzen duen isolamendu hori mantenduz.

Urmael bat du, egun eguzkitsuetan anfibioen kantuz girotua, hormigoizko bi pantailekin eratzen den iturri batekin etenik gabe elikatzen dena. Haren gainean, Paco

Lopezek egindako bi neska-mutilen brontzezko irudi daude, uraren isuriari beha daudenak adi. Lorategi-eremuetan, hiribidearen azpitiko pasabide batek elkarlotuak, planta handiko arboladiak ikus daitezke, besteak beste, indi gaztainondoak, erramuak, haltzadiak, urkiak eta ezkiak gordez. Molorrika sailen artean hegaztiak jostari ibiltzen dira, hiriaren zalapartarik urrun.

Partzela horretan El Leon izeneko garagardo fabrika ezaguna kokatu zen, eta haren aurretik, Zubimusu baserria.

MIRAMAR

Neguan Udan
8:00 – 19:30 8:00 – 21:00

Parke historiko hau goiko zonan dago estrategikoki kokatuta, Kontxako eta Ondarretako hondartzen artean. Beraz, Donostiako badiaren gaineko behatoki ikusgarria da. Old english estiloko jauregia landetxe eroso modura diseinatu zen udako egonaldietan zehar errege familiak bertan ostatu har zezan, eta 1893ko udan inauguratu zen. Pierre Ducasse lorezain frantziarra izan zen haren inguruan lorategiak diseinatzeaz arduratu zena, aurrealdean leunki itsasorantz jaisten direnak paisaiari behatuz gelditzeko landazabal bikain bezain erakargarri batean.

Parkearen gainerako eremua zelaiez osatuta dago, zuhaitz lerrokadurez inguratuta eta lore multzo ikusgarritz zipriztinduta, luraren orografia aldakorrera egokitzen direnak. Eredu hori harrizko horma batek ixten du. Bertatik huntza igotzen da nagi, txori zein tamaina txikiko hegaztiei aterpe eginez. Barrutirako sarbideak ere arranditsuak dira, burdina hesiz hornitutako atariekin eta guardia eta atezaintzarako gorputzetara bideratutako eraikin zaharrekin.



ERREGE BATEN... EDO ERREGINA BATEN MODUKO LORATEGIETAN BARNAKO OSTERATXOA

Parke historiko honetarako ibilbidea Ondarretako hondartzaren aurrean lekutzen den sarreratik, **ADREILU GORRIKO ERAIKIN ALMENADUN** 1 bitxitik, sartuz hasten da. Guardia Gorpuzaren antzinako dependentziak izandakoen mantendutako zati bakarra da, "txapelgorri" izenarekin ezagutu ohi ziren mikeleteek, jauregiaren segurtasunaz arduratzen zirenek, atari eta kuarteltxo modura erabiltzen zutena.

Barnera sartuta, parkea ezkerreara ikus daitezkeen **ITZAL-PLATANONDO** handien (*Platanus x hispanica*) lerroz inguratutako zelai zabal batean zabaltzen da. Parean landare multzo eder bat ikus daiteke, planta horizontaleko **HAGIN** 2 (*Taxus baccata*), **GARO ZUHAITZ** eta **HORTENTSIAZ** (*Hydrangea* spp.) eratua. Bidean gora eginez **IZEI URDIN** (*Picea pungens*) baten

albotik igaro daiteke, lore berde urdinkara duen piramide formako konifera txiki bat eta, apur bat gorako, **EXCELSA PALMONDO** (*Trachycarpus fortunei*) baten ondotik. Azken espezie hori oso ugaria da parkearen barnean. Bideak egiten duen bihurgunetik horma perimetralari begiratzear, **ZUHAIZTI** 3 bitxi bat osatzen duten zuhaitz ezberdinez osaturiko multzo bat ikus daiteke. Lehen planoan, adakera biribilduko bi kakiondo (*Diospyrus lotus*), apur bat atzerago **MAGNOLIO** (*Magnolia grandiflora*) multzo bat eta hormara itsatsita, bi **MAKAL BELTZ** (*Populus nigra* "Italica") eder.

Ibilbideak ongi zaindutako soropileko zelai handi bat inguratuz egiten du aurrera, ezkatetan banatutako planta handiko eta azal leun eta iluneko zuhaitz handi batek azpiratzen duen bihurgune



batera iristeko. **INDI GAZTA-INONDO** ④ (*Aesculus hippocastanum*) bat da, oso espezie ezaguna, pasealeku eta lorategietan itzal egiteko zuhaitz modura maiz erabilia. Zertxobait gorako artelatz (*Quercus suber*) handi bat dago, kortxoia ateratzeko erabiltzen den bere azal arin bereziarekin. Bideak gora egiten du **GEREZIONDO** (*Prunus* spp.) eta **LIKIDANBARREN** (*Liquidambar styraciflua*) artean, horma baten ingurumarira iritsi arte, non piramide formako soslaiak marrazten duten bi **HAGIN** ⑤ (*Ilex* spp.) nabarmentzen diren.

Eta goiko zabalgunean, **MIRAMAR JAUREGIA** ⑥ gailen agertzen da. Londoneko Selden Wornum arkitekto entzutetsuak diseinatu, eraikina old english edo cottage estilokoa da, eta Ingalaterra hegoaldeko landa eremuko



etxe zaharren arkitekturan dago inspiratuta. Adreilu gorri eta zurezko bilbaturaren uztardura dotoreari leihate irtinak, galeria irekiak, txapitula handiak, arkupeak eta terrazak gaineratzen zaizkio, Kontxako badia miresteko parada ematen dutenak. 1893ko udan inauguratu zuen Maria Kristina erreginak. 1972an, eraikina eta onibar osoa, Donostiako Udalaren jabetzakoa izatera pasa ziren eta, 1981. urtetik aurrera, Euskal Herriko Unibertsitatearen udako ikastaroak egiten dira bertan.

Jauregiaren atzealdeko legarrezko zabalgunean barna osteratxo bat egitean, men-debaldeko sarreraren alboan, **FIVE PLATES COUNTER CLOCKWISE** ⑦ obra ikus daiteke, Richard Serra eskultore estatubatuarrena. Formatu

handiko instalazio post minimalista bat da, beroan izeztakotako altzairuzko bost xalez eratua, erdiguneko pentagono batean batzen direnak, zeinaren geometriak kanpoko nahiz barneko espazioak sortzen baititu.



Eraikineko paretara itsatsita, aurreraxeago, hiru **LARANJA MINGOTS ARBOLA** (*Citrus aurantium*) lurrintsu daude, eta horien parean, **INDIMITRE** (*Lagerstroemia indica*) eder batzuk. Zabalgunearen amaieran **PAGO GORRI** **8** (*Fagus sylvatica purpurea*) ugariren hostotza galanta nabarmentzen da, itzal-platanondo handien artean nahasita.

Bidean atzera eginez gero, mendebalderantz irekitzen den ataripetik igarotzeko, aurreko fatxadaren eskalinata luzearen aurrez aurre hedatzen den lautadara hel daiteke. Zuhaiztirik gabeko zona bat da. Horri esker, badiarako ikuspegia paregabea da. Bertan malda leuneko zelai bat zabaltzen da, hortentsia sailekin. Lorategien jatorrizko diseinua egiteaz Pierre Ducasse arduratu zen. Lurraren orografia berezira egokitutako paisaia naturalak

irudikatzen ahalegindu zen. Bere lanari esker, Ducassek Errege Etxearen Lorezain aitortza jaso zuen. Dena den, ezin izan zuen bere obra amaituta ikusi, inauguratu baino urtebete lehenago zendu baitzen.

Bide eroso batetik **LORETO-PEKO** **9** izenarekin ezagutzen den txoko eder batera jaitsi daiteke, badiarantz proiektatzen den kai mutur arroka-tsu baten gainean kokatua, Ondarreta eta Kontxako hondartzak bereiziz, ezkereskuin, hurrenez hurren.

Eduardo Chillidak bere lagun Rafael Ruiz Balerdi margolariari oparitutako **BESAR-KADA** **10** eskultura gailen ageri duen behatoki apain hori alde batera utzi ondoren, gomen-dagarria da denbora tarte bat hartzea badiako eszenario arranditsuan begirada



patxaran uzteko. Iparraldera, zerumugaren lerro urdina hautsi egiten da lgeldo eta Urgull mendien soslai itzelen aurrean, Santa Klarako irla markotzatzen dutenak.

Bidea berriro hartuz, parkearen mugak zedarritzen dituen burdin hesi zurira arte helduko gara, eta bertatik oinezko tunel baten gainean paratzen den harrizko eskalinata batetik zehar igotzen da, hura azpitik igaroz. Hain zuzen, lurpeko igarobide horretan dago Victor Goikoetxearen MiramArt obra

artistikoa, urpeko espazio batean murgiltzearen sentsazioa irudikatu nahi duena material, ehundura, distira eta zimurtasun ezberdinak aplikatuz.

Berriro jauregiaren aurrean hedatzen den zelaian, eskuine-rantz egiten duen bidegurutzea hartu behar da, ezkerretik lore multzo koloretsu batzuk inguratua, berriz ere parkeko gainaldera iristeko. Handik, **HARRI GORRIKO LAUZADUN** **11** xendra txiki bat abiatzen da, beste landare apaingarri batzuen artean, **HIAZINTO** (*Hyacinthus* spp.), **MAHONIA** (*Mahonia* spp.) eta **HORTENTSIA** (*Hydrangea* spp.) sailez apaindua. Xendra horrek parkeko burdin langara eramango gaitu, ibilbideari amaiera emanez.



BERIO

KOLDO MITXELENA

11

PARKEAK — KOLDO MITXELENA

Izena Koldo Mitxelena hizkuntzalari handiari zor dion parke apain hau terraza-behatoki zabal ugariaren modura dago egituratua, elkarren artean ongi zola-tutako bideekin batuta. Berioko muinoa koroatuz Kontxako badia zaintzen duten mendien zein bere oinetan hedatzen den Antiguako hiri-bilbearen ikuspegi izugarriak ditu.

Belardien artean makal, sahats, magnolio eta aranondo japoniarren landatzean daude, nahiz eta elementu natural azpimarragarriena artadi kantauriar sendoen lerrokadura den, parketik hurbil, kale soil batzuetara baino ez dagoen Berioko artearekin ahaidetuak. Ia 25 metroko altuera eta 5 metrotik gorako perimetroko enborra duen arte hori 1997an Euskal Autonomia Erkidegoko zuhaitz berezi deklaratu zen, eta zeharo urbanizatutako zona batean lekutzen bada ere, haren inguruan biribilgune handi bat eraiki da, hura babesteko zeregin bakarrarekin.



25.600 m²

DBUS

33

35

40

PAGOLA- DAMAZELA

Muino baten (Damazelai) gailurra eta ipar magala nahiz hegoaldeko magala (Pagola) hartzen dituen espazio zabal bat da, Euskal Herriaren Adiskideen Elkartearen pasealekuak bereizita geratuz.

Damazelaiko zonak ia ez du biderik. Horrek aukera ematen du zelai bigunaren gainean oinez ibiltzeko zuhaitz autoktonoen landaketen artean (urkia, pagoa, haritz, erramua edo ametza kasu). Tontorretik Igeldo eta Orioren arteko kostaldeko mendikatearen ikuspegi ederra zabaltzen da. Haren oinetan, Igara eta Errotaburu auzoak hedatzen dira.

Pagolako eremua banku korrituz hornitutako plaza nagusi bat du eta zuhaitz espezie anitz ageri dituen zelai batean zehar sigi-saga igotzen den bide batek gurutzatzen du. Goialdean kirol pistak, pilotalekuak, rokodromo bat eta skatean aritzeko parke bat daude; behealdean, berriz, zurezko plataformak dituen aisiarako gunee baten alboan, antzinako harizti natural bat aurki daiteke.





ANTIGUA

LUIS VILLASANTE

13

PARKEAK — LUIS VILLASANTE

Makurdura leuneko pasealeku lasai bat da, abeldar sastraka batek zedarritua eta bankuz hornitutako behatokiak dituen. Altueran hego-mendebaldeko baso ibar bat inguratzen du, non zuhaitz eta zuhaixka begetazioko nahasketa heterogeneo bat elkarrekin bizi den. Eremu urbanizatutik hurbilen dagoen zonan espezie aldetik aniztasun handia ageri da, besteak beste, itsas pinuak, erramuak, lizarrak, milazkak eta, are, Panpako lezka exotikoko zenbait zuhaitz. Haatik, magalaren azpiko zonan planta handiko zuhaixka eta zuhaitz autoktono ugari dituen zuhaitzi eder bat mantendu da, non, besteak beste, haltzadiak, haritzak eta sahats hauskarak ageri diren.

Ohikoa da pasealekuan jostari dabilzan karnaba talde txikiak eta zapelatz arruntak edo belatzak aurkitzea, landareen artean ezkutatzen diren karraskari iheskorrek erakarrita zalantzarik gabe.

Parkearen erdialdean, landarediaren oparotasunean gordeta, Mariene izenarekin ezagutzen zen antzinako baserri zahar baten aiurriak daude.

40

36

35

27



99.200 m²

DBUS

5

18

19

23

24

25

MIRAMON

Ametzagainarekin batera, Donostiako parke zabalena da.

Hiru ibarrek osatzen dute, iparretik hegora orientatuak, eta horietatik erreasto txikiak igarotzen dira. Horien artean, mendealdean dagoena da paseorako ondoen prestatua dagoena, izan ere, bide sare bat eta txoko ezberdinekin gozatzeko aukera ematen duen pasabide garai bat ditu, betiere, Arbideko Dorreen begirada dotorearen mende.

Modu erosoan aire zabaleko anfiteatrora iritsi, erabilera kulturaletarako diseinaturia, XVII. mendearen bigarren erdialdean eraikitako Katxola baserri-dolareko sagasti autoktonoetako landaketen artetik ibili edo erreka bazterreko landaredia osatzen duten haltzadi, lizar, erramu eta astigarren basarte trinkoaren freskotasanak limur zaintzan utz daiteke. Dena den, bisitaz gozatu ahal izateko, onena iturburutik, estratu geologikoetako kokaera bertikal bitxiak eratutako ur-jauzi mailakatutik, bidaia abiatzen duen Pakeako erreka kantariari jarraitzea izango da, Erramuneneke harizti hostotsura iritsi arte, bertan desagertzen baita erreka.

Kultura-ekipamendua

KATXOLA BASERRI — DOLAREA



NATURA, HISTORIA ETA BERRIKUNTZA UZTARTZEN DITUEN IBILBIDEA

Parke zientifiko eta teknologikoaren barruan dagoen

ARIMA HOTELAREN 1 inguruan hasten da ibilbidea. Establezimendu berritzailea da hura, eta jasangarritasunaren eta ingurumenaren aldeko apustu garbia egin du; izan ere, haren diseinuari esker, % 70–90 bitarteko energia–aurrezkia lor daiteke. Aireztapen adimenduna, eguzki–argia eta geotermia eta aerotermia ere erabiltzen ditu energia sortzeko.

Zelai eta baso artetik behera egiten duen bidezidor batetik, bide nagusira iritsiko gara.

MANDO ERREKAREN ondotik doa hura ibarraren behealdean. Baso atlantikoa dugu han, **HARITZA** 2 (*Quercus robur*) duena nagusi, eta ez da harritzekoa izatean **KATAGORRIAK** (*Sciurus vulgaris* L.) ikustea ere, arbola puntan adarrik adar saltoka.

Ibilbideak poliki–poliki behera eginez segitzen du, uraren etengabeko murmurioa entzunez, **ZUBI TXIKI** 3 ikusgarri baten azpitik pasatu arte. Oinezkoentzako zubi txiki lirain bat da, Jon Begiristain arkitektoak diseinaturik, erreken gainetik pasatzeko. Altzairu galbanizatuz egina du egitura, eta tirante tenkatu batzuek eta lau pilare metaliko gurutzatuek eusten diote zubiaren taulari. Haren azpitik igarotzen da bidea, eta ezkerretara egiten du gero, egurrezko zubi baten gainetik pasa eta gora egiten hasteko hurrena.

Mando erreken eta Pakeako erreken ibarrak bereizten dituen muinora iristen da hala. Zientziaren eta teknologiaren arloan espezializatutako enpresa asko jarri dira han, eta ezagutzaren sektore intentsiboak ikertzeko eta garatzeko



ekosistema egokia sortu da. Horri esker, Europan den hiririk ekintzaileenetako bat dugu Donostia. Eraikin horien diseinu funtzionalaren ondoan, **ARBIDE DORREEN** 4 estilo neogotikoak egiten duen kontrastea dugu. Ispilu geometriko ia erabatekoa duten bi eraikin horiek Bartzelonako Sagnier arkitektoak 1904an proiektatutako jauregi txiki bat izan ziren. Foruen pa-sealekuan zeuden hasieran, Urumearen ondoan, baina 1975ean, botatzeko arriskua zela eta, harriz harri desmuntatu eta orain diren lekura ekarri zituzten.

Maldan zulatutako zurezko eskailera-maila batzuetatik behera jarraitzen du ibilbideak handik aurrera, ibarraren hondoraino. Trunko batzuekin egindako zubitxo xarmagarri bati esker, **PAKEAKO ERREKA** gainditu eta **ERRAMUNENKO** 5



harizti ederrera jo dezakegu; baina, horren ederra denez, beste behin propio etorri eta bisitatzea merezi du hark. Gure ibilbideak, ordea, goialdera egiten du, errekaaren ondoan den bidezidorrari jarraituz.

lbaiertzeko landaredia nagusi den baso trinko bat zehar-katuko dugu, batez ere **HAL-TZAK** (*Alnus glutinosa*), **LIZARRAK** (*Fraxinus* spp.) eta **ASTIGARRAK**, nahiz eta erramu arbolak ere (*Laurus nobilis*) badiren. **ERRA-TZEZ** (*Ruscus aculeatus*), **LAHARREZ** (*Rubus floribundus*) eta garoz

eratutako **BASOPE** batek osatzen du ekosistema.

Bidean goazela, **HILDAKO ZUR-HONDARRA** 6 ere aurkituko dugu, eta funtsezkoa da hondar horiek izatea basoaren ziklo naturalerako.



Enbor eta adar lehor horiek, babesa ematen diete saguzarrei, hegaztiei, narrastiei eta karraskariei; eta jana intsektu batzuei: adibidez, **ZULAKARI HORIARI** (*Zeuzera pyrina*), **KAKALARDO ADARLUZEARI** (*Rosalia* spp.) eta **ARKANBELEARI** (*Lucanus cervus*). Organismo xilofago horiek, desegin egiten dute egurra; lurra elikagaiz aberastu eta prozesu ekologikoak indartzen dituen prozesu motel bat eginda.

Oinez-oinez, egurrezko esku-banda duen zubi bateraino iritsiko gara. Urari eutsi eta **URMAEL** 7 txiki bat eratzen du hark. Putzu hori **IGEL BERDE ARRUNTAREN** (*Pelophylax perezi*) bizilekua da, baina hegazti askok ere bisitatzen du, ura edateko eta. Martin arrantza-lea (*Alcedo atthis*) ere maiz inguratzen da, han gertuan izaten baita, jaten dituen animalia txikien zelatan. Ur-bazterra

inguratuz, **UR—JAUZI TXIKI MAILAKATU** 8 batera ailegatu gara. Arroka geruza bertikal batzuek sortutakoa da, urari saltoka—saltoka jaitsarazten diona.

Etorritako bidean metro batzuk atzera egin behar dugu handik, eta **AIREKO PASABIDE** arin baten oinarriara iritsi, handik gora egiten baitu gure bideak, aldapa piko bat igoz. Biaduktuaren erdi paretik ederki ikusten dira parke teknologikoko eraikin enblematikoenetako batzuk. Eskuinean, **BASQUE CULINARY CENTER-EN** egoitza dago. Gastronomiako eta sukaldaritzako presuntakuntza, ikerketa eta berrikuntza erakundea. Eskuinean, **ZIENTZIA—MUSEOA** dugu, gune didaktiko interaktiboa, lorategi botaniko erakargarri bat ere baduena inguruko lorategietan.



5



1



8

Puntu horretatik aurrera, bide zabal batetik segitzen du bideak, sagardotarako sagarrondo sail batetik, harik eta **ANFITEATRORA** 9 iritsi arte. Aire zabaleko antzeztoki berezi honek 3.200 pertsona esertzeko tokia du, eta agertoki zirkular bat, **NEKOSTA** (*Cupressus sempervirens*) ilara batek babestua. Eskuinean, ondo asfaltatutako bide bat dugu, **KATXOLA BASERRI—DOLARERA** 10 doana. Katxola baserria XVII. mendearen bigarren erdikoa da, eta han ditu oraindik ere sagardoa egiteko erabiltzen diren instalazioak eta makinak.



AMARA

BASOERDI

15

Espazio honek zirku formako ibar hondo bildu bat hartzen du, Amara kaletik abiatu eta Belokako pasealekura arte igotzen dena.

Galtzada-harrizko bide batetik patxaran zeharka daitekeen parke bat da, bihurgune leunak eginez jaisten dena, edo parkea josten duten eskailera-tarteetatik behera eginez. Lur belartsuetan barreiatuta zuhaitz espezieen, autoktonoak eta apaingarriak, ugaritasun handia aurki daiteke, gerizpea eta fresko-tasuna ematen dutenak, besteak beste, urkiak, lizarrak, indi gaztainondoak, likidanbarrak, katalpak, itzal-platanondo, hosto gorriko pagoak, izeiak, sekuoiak, pauloniak edota zedroak.

Beheko partean, harrizko biribilgune batean inskribaturik, haritz itzel bat dago, eta haren parean, baterako enbor batetik adarkatzen diren palmondo bitxien lerrokadura bat. Parkean goiko zonatik altxatzen diren hiru makal eder gailentzen dira. Onibar horretan aurrez Altxuene izeneko baserri bat egon zen, nahiz eta lekua Basoerdi edo Basordi izenarekin ezagutzen zen.

PARKEAK — BASOERDI



11.400 m²

DBUS

36

SERAFÍN BAROJA

Neguan
9:00 – 19:00

Udan
9:00 – 21:00

Lugaritzeko muinoaren gainaldean lekututa, forma ia pentagonal duen parke historiko hau Apaiztegiaren eraikinaren atzean kokatzen da. Beraz, Kontxako badiaren gaineko talaia paregabea da.

Paraje horretan lasaitasuna jaun eta gabe da eta egunerokotasunaren joan-etorritik ihes egiteko gonbitea luzatzen du, ia hiritik atera beharrik gabe. Planta handiko arboladi bat gordetzen du. Bertan ageri dira lizarrak, indi gaztainondoak, astigarrak, zedroak, izeiak, sekuoia eta Himalaiako palmondoak. Horien azpitik osteratxoak egin daiteke ongi zaindutako bideei esker. Horien artean magnolio ikusgarri bat nabarmentzen da, Udal Plan Orokorra babestua. Onibarra, eta iraganean bertan zegoen jauregia, Monteleon de Castilblancoko Dukesarenak ziren. Horrenbestez, parkea izen horrekin ere ezagutzen da. Egun duen izendapenak, ordea, Pio eta Ricardo Barojari egiten dio omen, mehatzetako ingeniari izateaz gain idazle, poeta eta hain ezaguna den Donostiako Martxako hitzen sortzaile izan zena.



SERAFIN BAROJA PARKEA

CASTILBLANCOKO DUKESAREN ARRASTOARI JARRAITUZ

Egungo Serafin Baroja parkeak Lugaritz etxe zahararen eta orubearen kokalekua hartzen du gutxi gorabehera. Dena den, izen berarekin baserri eta lur ezberdinez osatutako zona askoz ere zabalago bat ezagutzen zen historikoki. Ibilbidea Heritz pasealekuan kokatutako sarreratik, **MAGNOLIO 1** (Magnolia grandiflora) dotoreen artean igarotzen diren eskailerak igoz, parkera sartuta hasten da. Eskalinatak ongi zolatutako bide bat gurutzatzen duen gunean, eskuinera egin behar da, horma mugakidearen paraleloan bide hori eginez joateko.

Aurrera egitean **EXCELSA PALMONDOEN 2** (Trachycarpus fortunei) ilara bat ikus daiteke, parkearen hormatik kanpo kokatuak, beren enbor iletsu bereziari so ezagut daitezkeenak. Zona honetan

oparotasunez hazten da **ERRAMUA** (Laurus nobilis) eta, ezkutu antzean, ezkerrean, **ASTIGAR ZURI** (Acer pseudoplatanus) eder bat agertzen da, hura inguratzen duten zuhaixken artean bere lekua erreklamatzuz.

Apur bat aurrerago, bi etxebizitza blokeren arteko ireki-gunea aprobetxatuz, Kontxako badiaren ikuspegi paregabea dago, Santa Klara irla erdian duela. Bideak soropildun zona soilduen artean egiten du aurrera, zuhaitz bakartiekin, zeintzuen adarretan **TXONTA ARRUNTAREN** (Fringilla coelebs) kantu berezia entzun baitaiteke.

Eskerrera dagoen saihesbide bat gailurrera bideratzen da zuzenean, **EZPEL 3** hesien (Buxus sempervirens) pasabide batetik barna. Zur hori gogorreko espezie hori lorezaintzan sarri erabiltzen bada ere, ez da ohikotasunez aurkitzen hemen



bezain hesi trinko eta altuak osatuz. Parkearen gailunean, **JOLAS—EREMU** 4 originaletik, soilgune zabal bat ikusten da. Bertan indimitre (*Lagerstroemia indica*) zuhaixkak ageri dira lehen planoan.

Arrastorik ere geratzen ez bada ere, antzina, gailurrean Manuel de Mariategui Viñalsek, San Bernardoko Kondeak, 1882an Lugaritz baserria eta hartako lurrak bereganatu ostean, eraikiarazi zuen jauregitxo dotore bat zegoen. Etxetzarra ongi zaindutako lorategien artean zegoen. Lorategi horiek, beste parke historiko batzuk bezalaxe, Pierre Ducassek proiektatu eta egin zituen. Hura hil zelarik, haren emazteak, **MONTELEON DE CASTILBLANCOKO DUKESAK**, onibarra bere bizitoki iraunkor bilakatu zuen, eta 1911n eraikinean zaharberritzeko eta hura handitzeko zenbait lan egin zituen.



Ibilbideak eskaileran behera eginez jarraitzen du, adar zintzilikariak dituzten bi **IZEI GORRI-REN** (*Picea abies*) aldamenetik. Magal erdira, eskuinera egiten duen bidea hartuz, **INDI GAZTAIN-ONDO** (*Aesculus hippocastanum*), **SASIAKAZIA** (*Robinia pseudoacacia*) eta **LIZAR** (*Fraxinus excelsior*) handien azpitik igarotzen da. Magalaren erdialdera, ingurune guztia menderatuz, **ATLASKO ZEDRO** 5 (*Cedrus atlantica*) eder bat hazten da, ziurrenera jatorrizko lorategiaren garaietan landatua.

Xendrak aurrera jarraitzen du bihurgune zabal bat eginez zelaigune batetik igaroz **APAIZTEGIKO** 6 lurrak zedarritzatzen dituen hormara arte. Ziurrenera hiriko tamaina handieneko eraikina izango da, sei solairuko altuera eta



bi dorre mardulekin. 1943an hil ondotik Monteleon de Castilblancoko Dukesak Gotzaintzari utzi zion bere onibarra legatu modua. Hala, jauregia apezpiku-egoitza modura gaitu zen eta 1954an bertako lurretan Apaiztegi Diozesiarra eraiki zen. Gaur egun, Artxibo Historiko Diozesiarra lekutzen da bertan, probintziako parrokia guztietako erregistroak gordetzen dituen 1498az geroztik.

Bihurgune itxi bat marraztu ostean, bideak ezkerrean jarraitzen du. Bertan **ERRAMUEN** zuhaizti basati batean barneratzen da bidea. Osteratxo Gerraenen amaitzen da. Bertako horma perimetralak karlistadetan muinoan instalatu ziren **GOTORLEKUETAKO** 7 parapetoak dakartza gogora, 1835an jazotako Lugaritzeko Borroka krudelaren lekuko izan zirenak.



Parke hau izen bereko muinoan dago kokatuta. Haren gailurra talaia paregabea da eta lgeldo, Ulia eta Urgull mendiak ikusteko aukera eskaintzen du, itsasoaren urdinean markoztatuta. Nahiko tamaina txikikoa bada ere, espazio horretan ekosistemei dagokienez dagoen dibertsitatea azpimarragarria da. Ekialdeko magalean haritz, gaztainondo eta hurritzez osatutako hostotsuen baso mistoa nabarmentzen da, zuhaixken oihanpe batek inguratuta, parkean bizi diren espeziei ezberdinentzat gerizpe dena. Kolore gorrixka berezi bateko labirinto bideetatik paseoan ibiltzeak planta handiko zuhaitzen segida behatzeko aukera ematen du.

Zuhaitz horien artean espezie autoktonoak nahiz exotikoak daude. Azken horien adibide dira zedroak, itzal-platanondoak, pinuak edo mimosak.

Muinoa koroatuz Villa Puio izenarekin ezagutzen den eraikina dago, lekaimeen ordena bateko egoitza, antzina karlistadetan zehar altxaturiko gotorleku bat egondako lekuan paratua. Gotorleku hura, era berean, aurretiaz zegoen baserri bateko (hura ere Puio izeneko) hormak egokituz eraiki zen.

AIETE

8:00 – 21:00

Hiriko zona garaietako batean kokatuta, Aieteko jauregiaren inguruko lorategietan guztiak edertasun natural barea inspiratzen du. Hiriko beste parke historiko batzuk bezalaxe, hau ere Pierre Ducassek diseinatu zuen XIX. mendearen amaieran, kasu honetan, Baileneko Dukeen enkarguz.

Eremuan zuhaitz bilduma aberasgarria dago ikusgai, ehun espezie eta barietate ezberdin baino gehiagorekin, horietako zenbait egiaz bitxiak. Goialdean urmaela dago, non beltzargek dotoreziaz egiten baitute igeri dortokek eguzkipean lo kuluxka egiten duten bitartean. Bertatik erreka bat sortzen da haitzulo artifizialaren gainean turrusta bilakatzen dena, eta ibar batetik beherantz jarraitzen du, ur bilduak eta ur-jauzi txikiak eratuz. Lorategiek inspirazio erromantikoa ageri dute argi eta garbi, eta larreen artean sakabanatutako lore multzo horietatik daude, bizitzaren ikuskeran esertzeko aproposak. Onibarrean, Bakearen eta Giza Eskubideen Etxea hartzen duen jauregi neoklasikoa ez ezik, kultura erabilerara bideratutako beste hainbat eraikin daude.

Kultura-ekipamendua

AIETEKO KULTUR ETXEA
BAKEAREN ETA GIZA ESKUBIDEEN ETXEA



BAKEA BERDETASUN BIHURTZEN DEN IBILALDIA

Ilbilbide honek lorategi batzuetan paseatzea proposatzen digu: Bailengo dukeek garai batean Hayet familiarena izandako fincan eraiki zuten jauregia inguratzen duten lorategietan. Finkaren iparraldetik dute sarrera lorategiek, Santo Kristoren parrokiatik gertu den atetik. Handik hasi eta gora egiten du ibilbidea, poliki-poliki, **SIKOMORO** (*Acer pseudoplatanus*) eta **INDI GAZTAIN-ONDO** (*Aesculus hippocastanum*) artean. Ezkerraldean, bidexka bat dugu, **AIETEO KULTUR ETXERA** ① eramaten duena. Jauregiaren behealdean dago kultur etxea, eta jarduera programa zabala izaten du.

Handik oso hurbil, Juan Jose Novellaren **URTE HAIETAN / AQUELLOS AÑOS** eskultura dago, Gerra Zibilaren eta frankismoaren biktimen oroigarri. Haren ondoan, gaztainondo landare gazte bat dago aldatuta:

ANA FRANKEK nazietatik ezkutatuta zegoen ganbaratik egunero ikusten zuen gaztainondoaren kimua.

Ondo zaindutako arbola eta parterre batzuen artetik jarraitu eta ezkerrean egin ondoren, **JAUREGIAREN** ② hegoaldeko fatxadara iritsiko gara. Eraikin neoklasiko dotorea da, 1878an eraikia, Donostian turismoa puripurian zegoen garaian, Adolphe Ombrecht arkitektoak egin dako proiektuaren arabera. Bi zakur handiren harrizko irudi ikusgarri batzuk daude sarrerako eskailerak zain-tzen; eta haien pare-parean, 1889an Ingalaterrako Victoria erreginak egindako bisita gogorarazten duen zutabe bat.

Jauregia atzean utzi eta, **EZKI ILAUNTSU** (*Tilia tomentosa*) eta **EZKI HOSTOZABAL** (*Tilia platyphyllos*) artean ibilaldi labur bat eginez



gero, eraikin bitxi batean aurrera ailegatuko gara, **IPUI-NEN DORRERA** **3**. Izan, ordea, lursailaren behealdean lurpean sartuta ziren bi depositu handitatik ura jauregiraino igotzeko punpak ziren eraikina da. Haren albo bati erantsita, kapera txiki bat dago, dorre oktogonal lerden batek buru ematen diola.

Puntu horretatik, parkearen erdialderantz egiten du ibilbideak, lorategi borobil bat inguratuz. Indi gaztain-ondoak eta ezkiak ditugu han, baina gehien nabarmentzen dena **HOSTO GORRIKO PAGO** ederrak da **4** (*Fagus sylvatica* "Dawyck purple"), kontraste handia egiten baitute haren hosto gorrixkek pago arrunten (*Fagus sylvatica*) hosto berdeekin.

Handik urruti gabe, **URMAEL** batzuk **5** ditugu, beren **BELTXARGA** (*Cygnus olor*) eta



5



6



ahateekin. Putzurik handi-
nean dortoka mordo bat ere
badago, panel bat ondoan
duela, espezie exotiko inbadi-
tzaile horiek tokiko ekosiste-
mentzat dakarten arriskuaren
berri emateko. Aintzira txiki
horretatik ateratzen den urak
behera egiten du, kolore
biziko lore artean sigi-saga,
sigi-saga, harik eta ur-jauzi
ederrak batean beheara erori
arte. Handik aurrera uhar txiki
bihurtu eta parkearen beheko
aldea korritzen du.

Ur-jauziaren azpian ezku-

tatuta dauden **HAITZULO** **6**
misteriosu batzuetatik iga-
rotzen da bidea. Ur tanta ba-
tzuk beti erortzen dira handik
pasatzekoan, eta freskotasun
eta musika doinu oso atse-
gina ematen dute. Arrokaiaz
egindako eraikuntza artifizial
hori ohikoa da XIX. mendeko
paisaia-lorategietan, eta lur-
peko barrunbe naturalen antz
handia izatea lortzen dute.

Kanpora atera eta, parepa-
rean, **SEKUIA** **7** dotore bat
dugu (*Sequoia sempervirens*),
nabarmen gailentzen dela
inguruko magnolio eta pago
baso itxiaren gainetik. Zalan-
tzarik ez dago aurren-aurre-
neko lorategia egitekoan
aldatua izango dela hura, eta
jende askok esaten du Donos-
tian den altuena ere izango
dela.

Ur-korrontea alde batera utzi
eta aurrera egiten du ibilbi-
deak. Bidezidor estu batean

gora, **PALMONDO** (*Trachycarpus fortunei*) sail trinko artean, aurrena, eta pago handi batzuen artetik, gero. Eta hala, berriro ere lorategien goiko aldera iritsiko gara. Han, ederki asko moztu-tako belardi handi bat dugu, tartean-tartean diren indi gaztainondoen itzalean lasai ederrean etzateko modukoa. Bidexka batzuk ere badira zelai horretan.

Aurrera segitu nahi badugu, eskuinaldera egiten duena hartu behar dugu, bi **URKI ILE-TSU** (*Betula pubescens*) ederrek erakusten digutena. Kolore zurixka berezia izaten du urki klase horrek. Bideak, berriz, kolore gorriko gela bitxi baten albora eramango gaitu zuzen-zuenean. Zutabe eta habe berdeez apaindutako tokia da, dorre txiki bat duena. **USATEGIA** 8 zen lehen, eta Bonsai Kultur Elkartek



erabiltzen du orain bere lana erakusteko.

Bidearen justu beste aldean, **TOPALEKUA** 9 dago. Gizarteko eta kulturako jarduerak egiteko erabiltzen den tokia dugu orain, eta gurdiak gordetzeko izaten zen garai batean. Duen arkitektura moduak (arku handi batzuk sarreran-eta) eta bizitzeko tokietatik urrun egoteak (zaldiek sortzen zuten eragozpenik-eta ez izateko), aise gogorarazten digute zertarako erabiltzen zen hura lehen.



Bi pabiloiak pasatu ondoren, **INDIMITRE** (*Lagerstroemia indica*) ale berezi baten ondoan jira egin eta ezkerretara jotzen duen bidea hartu behar dugu, legar horixkako bidea. Handik hurrena, eskuinetara egin eta zuhaizti-etorbide fresko batean aurrera egiten du ibilbideak. Eskuineko aldean **ZELKOBAK** (*Zelkova serrata*) ditugu, eta **HARITZ AMERIKARRAK** (*Quercus rubra*) ezkerrekoan. Parkean diren bi **ginkgo** edo **PAGODETAKO ZUHAITZ** (*Ginkgo biloba*) exotikoetako baten ondoan amaitzen da ibilbidea.

Hegoaldeko atletik utz deza-kegu parkea, aire zabalean den **AFALTOKI** 10 apain eta haur-erentzako jolastoki jendetsu baten ondotik pasatuta.



LAUAIZETA

Eremu berde zabal honek argi bereizitako bi zona ditu. Beheko zonan, bide sigi-sagatsu batek ibar fresko eta laiotz bat inguratzen du. Bertatik erreka sto isil bat igarotzen da, eta haren ertzetan ur bazterreko landaredia hazten da, hegazti zaratatsuen eta urtxintxa jostarien bizileku. Bankuz zedarritzatutako xendrak erreka ren ibilgua gaintzen du ekialdeko inspirazioa ageri duten egurrezko zubien bidez. Haren alboan, garo zuhaitzak hazten dira. Aitzitik, goialdean makurdura leuneko zelai eguzkitsua da. Bertan zume negarti eder bat nabarmentzen da, sagasti zahar baten zaindari ilauna.

Parean lau terraza eraiki dira, malkarra aprobetxatuz. Horietan haurrentzako jolasak eta ariketa fisikoa egiteko espazioak ipini dira, ezpondak tobogan eta rokodromoe kin gaintuz. Parkearen gailurrean, Lau Haizeta erretegitik oso gertu, lore mardulak aurki daitezke, osaera estetiko batean antolatuta, non landare bizi, zukutsu eta lurrintsuak konbinatzen diren.



96.150 m²

DBUS

13

24

27

31

33

38

URUMEA IBAIKO PARKEA

Haren azalerak ilargi erdiaren forma berezia marrazten du, izan ere, parkea Urumeak sortzen duen meandroaren ingradara egokitu da.

Espazioa bide sigi-sagatsu batek zeharkatzen du erditik, bidegorriaren paraleloan luzatzen dena. Bertatik eremu ezberdinetara irits daiteke lauza angeluzuzeneko xendra deigarri batzuetatik. Parkearen erdialdean Kristobaldegi izeneko klausurako komentu bat dago. Bertako hormetako harri zaharrek kontrastea eragiten dute ipini diren instalazio modernoekin. Haren parean makaldi bat dago. Bertako zuhaitzak harrizko blokedun zuhaizti gertukora harrokeriaz begira daudela dirudi. Ibai ibilguaren gainean dauden behatokitatik ertzak ikus daitezke, non itsasaldien eraginak ez duen lezka, kanaberadi edota milazken presentzia eragotzi. Zume negarti, altzifre eta haritz itzel batzuk haurren jolasei bekaizkeriaz beha daudela dirudi, hondoan, Bernategi baserriaren aldamenean, pantalan batek arraunontziak uretan sartzea ahalbidetzen duen bitartean.





LOIOLAKO ERRIBERAK

OROIMENAREN LORATEGIA

8:00 – 22:00

21

PARKEAK — OROIMENAREN LORATEGIA

Ekialdeko lorategi espiritualetan inspiratuta, parkea elkarbizitza, errespetu, berraurkitze eta bakearen leku sinboliko modura dago egina, patxada eta norberaren barnerapenerako giro bat sortuz, gerra, indarkeria eta terrorismoaren biktima guztiak omentzeko. Landarez beteriko mendi bizkar ugariak elkar bihurtzen dute, modu horretan kiribil bat eratuz, isiltasunak azpiratzen duen erdiko zelai bat babestuz.

Paisaian hostotzaren kolore berdea eta loreen zuria dira nagusia, arretaz hautatuak izan direnak urtean zehar mailakatuta lora daitezzen. Aldirietan urki eta sekuoien zuhaizti soil bat dago, erdiko muinoan magnolioak eta gereziondoak, eta eremu osoan zehar sakabanatuta aranondoak eta udareondoak ugariak dira. Multzoa osatuz, anemona, agaphantus eta annabelle bariatateko hortentsia sailak. Parkearen iparraldera lesu eliza dago, estilo modernokoa eta diseinu minimalistakoa, Rafael Moneo arkitektoak proiektatua.

P WC 23.900 m²

DBUS 26 27 31

CRISTINA ENEA

06:30 — 22:30

Hiriko parke jendetsuenetako bat da, zalantzarik gabe, izan ere, hiru auzo populatu batzen diren gunea da eta, gainera, edertasun bukolikoa du eta lorategi historikoen lilura erromantikoa.

Espazio Urumea ibaiaren azken meandroak konfiguratzeko duen penintsulan lekutzen da, Mandasko Dukeen onibar pribatua izan zen lekuan, hil ostean hiriri dohaintzan eman zitzaizlarik. Berez, parkearen izena bera Cristina Brunetti dukesaren omenaldia da. Lorategiak Pierre Ducasse lorezain prestigiotsuak diseinatu zituen, zuhaitz exotikoak gaineratuz, esate baterako, ginkgoa, sekuoia edo Libano zedroa, garai hartan ohikoa ez zena. Gaur egun, atseginez osteratxoan ibiltzeko bide zabalak ditu, belardi handiekin eta zuhaiztiekin txandakatzen diren aisialdirako guneekin gozatuz. Urumea ibaiertzean ur-bazterreko landaredia duen baso bat hedatzen da, ongi zaindua. Bertako urmaelean, forma puruak dituen, beltzarga eta ahateak alaiki ibili ohi dira plisti-plasta egiten, jauregiaren ingurumarian paumak beren lumadura koloretsua erakusten duten bitartean.

Kultura-ekipaendua

**DONOSTIAKO INGURUMEN
BALIABIDEEN ETXEA**



MANDASKO DUKE- DUKESEN LEGATUAREKIN GOZATUZ

Ilbilbide sarrera nagusitik abiatzen da, egun Kultura Garai-kidearen Nazioarteko Zentro bilakatutako Tabakalerako fabrika zaharraren parean. Parkera sartzeko jatorrizko arkutaria igaro behar da, hiri-ko armarría erakusten duena, eta atezaindegiko eraikina alde batera utziz.

Gorantz egiten duen bidea hartu behar da, parkea inguratzen duen harrizko paretaren aurrean dauden **GEREZI-ERRAMU** (*Prunus laurocerasus*) zuhaitz ugariaren alda menetik igaroz. Gorantz egitean, ezkerrean irekitzen den bidegurutzea baino lehentxeago, parke osoan dauden **ERRAMUEN** **1** (*Laurus nobilis*) arteko handienetako bat dago. Bidegurutzea hartuz goialdera igo daiteke. Bertako zona basotsuetan ez da zail ilunabarrean urubi arrunta (*Strix aluco*) entzutea, hirietan

sartzen den gaueko harrapari bakanetako bat.

Desbideratzea igaro orduko, **ASTIGAR ZORROTZ** **2** (*Acer platanoides*) talde bat ageri da, luze-etara arrakalatutako azalengatik erraz ezagut daitekeena. Espezie horrek koloretasuna ematen die lorategiei, izan ere, udazkenean, haren hostoek kolore urrekara edo purpura hartzen dute. Bihurgunean, **EZKI HOSTOZABAL** **3** (*Tilia platyphyllos*) bat dago.

Hortik aurrera, bideak **IPOTXEN ZUBIA** **4** izeneko zeharkatzen du. Hura gurutzatu ondoren, paisaia **BASO** **5** trinko batean ixten da, ehunka urte dituzten zuhaitzez eta gazteagoak diren zuhaitz multzoz eratua. Horietako asko landatu egin zituzten, baina beste batzuk, **LIZARRAK** (*Fraxinus excelsior*) esaterako, naturalki hazi dira. Ezkerrean **EZKI ARRUNT** batzuk



ikus daitezke eta, atzean, ia hogeita hamar metroko altuera duen **EZKI HOSTOZABAL** zuhaitz itzel bat. Bitxikeria modura aipa daiteke baso misteriotso hori Hermia eta Lisandra amoranteen ihesaren amaieraren eszenario izan zela, Shakespeareren “Udagaue bateko ametsa” obraren egokitzapenean, parkean bertan antzeztua Europako Kultura Hiriren ospakizunean, 2016an.

libildidearekin jarraituz, forma eliptikoa duen soilgu-
nera iritsi baino lehentxeago, **IPARRALDEKO** bi **ELORRI ZURI** **6**
daude (*Crataegus monogyna*),
MIHURAK (*Viscum album*) zeharo
parasitatua, eta **GOROSTI**
(*Ilex aquifolium*) zuhaixka
multzo bat ere bai. Tradi-
zionalki Gabonetan bilatu
ohi den espezie ezagun hori
baberstuta eta Euskadiko
Mehatupeko Espezieen

zerrendan sartuta dago, inter-
res bereziko modura.

Oinezko pasealeku eguzki-
tsu batek inguratutako zelai
zabalean **GINKGO 7** (Ginkgo
biloba) zuhaitz erraldoi bat
gailentzen da, udazkenean



hartzen duena distira handiena, hostoek kolore horiz janzten direnean. Espezie hori zuhaitz fosilizat hartzen da, izan ere, aldagaitz mantendu da duela 270 milioi urte Lurrean agertu zenetik. Cristina Eneako zuhaitza ez da horren zaharra, izan ere, 1865eko urtarrian landatu zen.

Elipsearen azpian, mendebaldeko magalean, urte asko dituen **LIBANOKO ZEDRO** (*Cedrus libani*) zuhaitz bat dago. Haren adarrak modu horizontalean irekitzen dira, planta dotorea

emateko. Haren eskuinera, lagun isil modura, **ALTZIFRE FALTSU** **8** (*Chamaecyparis lawsoniana*) bat ikus daiteke.

Aldapa jauregirantz jaitziz, **MAGNOLIO** (*Magnolia grandiflora*) baten gerizpean eta **KAME-LIA** (*Camelia* spp.) eta **PEONIA** (*Paeonia suffruticosa*) zuhaixkez inguratuta, **FERMIN DE LASALA Y COLLADOREN** **9** bustoa dago, 1926an egina. Harekin lerrokatuta, 2021ean jauregiaren barnean beste busto bat ipini zen, Cristina Brunetti y Galloso de los Cobos emaztearena. Bi pieza artistiko horiekin, Donostiaren esker onaren erakusgarri, Mandasko Dukeei omenaldi zintzoa egin nahi zaie, izan ere, aipatu dukeek, hil ostean, Cristina Eneako onibarra eta bertan zegoen guztia eman zioten do-haintza hiriari, berariazko agindu bakarrarekin, haren

erabilera gozamen publikorako izan zedila eskusiboki.

Jose Clemente de Osinalde arkitektoak egindako **JAUREGI 10** dotorea 1890ean eraikia izan zen. Hasiera batean solairu bakarra zuen, eta beranduago beste solairu bat gaineratu zitzaion, egun duen egitura emanez. Beheko solairuan jangela, aretoak eta liburutegia zeuden, eta goikoan logelak eta dukearen bulegoa. Estaldurapean, mantsarda bidez zabaldua, zerbitzuak hartzen zuen ostatu. Eraikin hori sukaldeko eraikinarekin eta kapera txiki batekin batzen zen lurpeko pasagune baten bidez. Gaur egun, eraikin horiek Donostiako Ingurumen Baliabideen Etxea hartzen dute.

Haren ingurumarian ohikoa da **PAUMAK 11** (*Pavo cristatus*) aurkitzea, jatorriz Pakistangoa



den espezie exotikoa, 1977an sartu zutena lorategi hauetan. Gaur egun, parkeko ikur sietako bat dira, batez ere araldi garaian, arrek beren kolore anitzeko isatsak erakusten dituztenean emeen artean arrandiatzeko asmoz.

Ibilbidearekin jarraituz, bide nagusitik behera egin behar da, **BELTXARGEK 12** eta ahate errealek freskatzeko erabiltzen duten urmaela alde batera utziz, parkearen sarrerarantzko norabidean. Pare-



parean, elipsearen azpian kokatutako zelaia ikus daiteke. Bertan erro beretik kimatzen diren hiru **SEKUIOIA GORRIREN** (*Sequoia sempervirens*) irudi egundokoa nabarmentzen da. Atzean, **SEKUIOIA ERRALDOI** (*Sequoiadendron giganteum*) bat ikus daiteke, piramide formakoa.

Bideak modu erosoan egiten du aurrera parkeko sarrera nagusirantz. Une horretan parke erromantiko honi agur esan behar diogu historiak, edertasun begetalak eta egu-nero harekin gozatzen duen jendarte ugariren animazioak bat egiten duten lekua.



Eremu natural zabal hori berriki egokitu egin da, amianto atzeman ostean egindako kostu handiko kutsadura gabetzeko prozesu baten ondotik. Gaur egun, parkea ekialderantz irekitako ibar zabal bat da. Bertatik Jaizkibel eta Aiako Harriaren erliebe menditsuen ikuspegi paregabeekin goza daiteke. Ongi zolatutako xendra zabalen sare bati esker haltzadi, haritz eta gerezi-ondoan landaketak zeharkatu daitezke, ohikotasunez pareko magalean bazkatzen duten ardi eta zaldien begirada axolagabeen aurrean. Goialdean piknik eremu bat instalatu da mahai eta bankuekin, atsedean hartu eta solasean aritzeko.

Haren ondoan, paisaiaren gainetik nabarmenduz, tamaina handiko zuhaitz metalikoen kontzeptuzko irudika-penei esker glizinak gora egin dezakete horietan zehar, esekitako loreen beren sail ikusgarriak hedatzeko.

Kultura—ekipamendua

CASARES — TOMASENE KULTUR ETXEA

ARRIAGA

Oinplano ia erdizirkularra duen parke bat da, Herrera pasealekuaren gainean bermatzen dela dirudiena, eta Pasaiaiko badiarantz begira dagoen muino txiki bat hartzen duena. Planta handiko zuhaitzez beteriko zuhaitzi ezberdinak daude bertan, besteak beste, lizarrak, gereziondoak, magnolioak, idi-bihotz arbolak, zumarrak edo indi gaztainondoak. Horien artean osteratxoa egin daiteke belar bigunaren gainean. Lorategiz hornitutako etorbideak zutabe zuriko lerrokadurez inguraturuta daude, suontzi apaingarri metalikoz koroatuak.

Parkearen perimetro osoa ezkiz inguratuta dago. Ezki horiek loratzen direnean giroa eztitzen dute lurrin erlaxagarri batekin.

Goialdeko haurren jolasetarako parkearen aldamenean dagoen makal gailena nabarmendu behar da.

Haren alboan Arriaga Zar baserriaren aztarnak eta armarrria daude, Altzako orube zaharreko etxe garrantzitsuenetako bat, sute baten ondorioz ia guztiz suntsitu zena. Portugaleko Errepublikako lehen presidentea izan zen Manuel de Arriagaren jatorrizko orubea dela uste da.





ARROBITXULO

Parkerako sarbidea Herrera eta Intxaurren batzen dituen oinezko eta txirrinduentzako pasealekuan dago eskusiboki. Huntzez estalitako harri gorriak horma baten eta trenbidearen lubakiaren artean ahokatuta, aisialdirako espazio hori belardi handi baten moduan dago egituratuta. Bertan tamaina handiko zuhaitz isolatuak aurki daitezke, esate baterako, lizarrak edo itzal-platanondoak, espezie autoktonoen landatze berriekin batera, eta baita barietate apaingarri oso deigarriak, zume negartia edo astigar japoniarra kasu. Ekialdeak, auzotarrek barazki eta ortuariak landatzen dituzte lore taula apaingarri txikiak.

Eremu osoan zona berdeen eta adin nagusikoen-tzako jarduerak fisikoak egiteko eremuen, rokodromoaren, bolatoki tradizionalaren, piknik zonaren eta txirrinduentzako zirkuituaren arteko uztarketa orekatua nabarmentzen da. Parkean haurrentzako jolas-eremu berritzaile bat dago, esekitako pergola batek estalia, eguraldi txarreko egunetan ere erabiltzeko aukera ematen duena.

AMETZAGAINA

Miramonekin batera, Donostiako parke zabalenetako bat da. Beraz, auzo ugariatik du sarbidea. Baso hostotsu zabalak, oihanpe zona batzuk eta bost kilometroko ibilbideetan barna oinez osteratxo erosoak egiteko larre handiak daude bertan. Oraindik ere aurki daiteke ametz, parkeari izena ematen dion haritz mota eta jatorrizko basoaren ezaugarri, baina beste espezie batzuen artean sakabanatuta, besteak beste, haritz, haltzadi, gaztainondo, erramu eta urkien artean.

Eremu natural honetako elementu adierazgarrien artean ongi mantentzen den gotorlekua aipatu behar da, 1875ean eraikia, karlistadetan zehar, zonarik garaienean lekutua. Parkean, era berean, gravetiar arloko aztarnategi arkeologiko bat dago, gutxi gorabehera duela 27.000 urtekoa, eta hiriko zaharrena, uste denez. Halaber, badira aisiarako sailak, haurren jolaserako eremuak eta ariketa fisikoa egiteko egokiak, eta behatoki ikusgarri bat Urumea ibaiaren arroaren gainean.



BERDEEN ARTEAN OINEZ, GOTORLEKUAREN BEGIRADAPEAN


Amatzagainako bisita lntxau-
rrondo auzoaren sarreratik
hasten da, Tunizeko zona-
tik sartuta. Bertan **HARITZ**
PEDUNKULATUAREN 1 (Quercus
robur) zuhaitz handi bat dago,
sarbide horri izena ematen
dion etxeko heskaiaren alboan
gailentasunez altxatzen dena.
Eskuinetik sartuta, bide lau
batetik behatoki panoramikora
iritsiko gara zuzenean, ezke-
rrera kokatutako soilgune
eta zuhaitzi batzuetan barna.

Eskuinera, zona irekiago ba-
tean **LIZAR** 2 (Fraxinus excelsior)
bitxi bat dago, azal gris lauko
lau enbor dituen. Euskal
Herriko herri batzuetan, gaur
egun oraindik zuhaitz horren
adarrak ipintzen dira etxe
eta baserrietako sarreran,
espíritu txarretatik babesteko.
Apur bat aurrerago, bidearen
bestaldean, **HARITZ** 3 zahar
multzo bat nabarmentzen da
eta, apur bat harago, **URKIZ**

(Betula alba) eratutako zuhaitzi
bat, bere azalak ageri duen
kolore zuri nahastezinagatik
ezagut daitezkeenak.

Ibilbideak leunki jarraitzen du
BEHATOKI 4 zabal eta moder-
no batera iritsi arte. Parkearen
mendealdean dagoen zonako
gainalde batean paratua, talaia
pribilegiatu horrek urrunera
Kontxako badia begiztatzeko
aukera ematen digu, Igeldo
eta Uliia mendiak alde banatan
dituela, eta Urumea ibaiaren
ibilgua, parkearen hegoaldera.
Behatokiaren aldameneko ma-
gala larre erako eremu bikaina
da, egun oskarbietan atsedena
hartzeko eta paisaia ikustera
gelditzeko aproposa.

Larrearen eskuinetik igotzen
den legarrezko xendrak ia for-
ma obalatua duen zabalgune
batera eramaten gaitu. Bertan
enbor oker eta arraildua duen
urki bat dago. Haren albotik



igaroz muinoaren gainera iristen da, 123 metroko altueran kokatua. Bertan dago **AMETZAGAINAKO GOTORLEKU** **5** zaharra. Misterioz beteriko lekua da, non begetazioa jaun eta jabe egin den antzina, zuloa, kuarteleratzeak, bolborategia eta kanoien kokalekuak zeuden tokian. Eraikina, Donostiako gazteek zein Alemaniako Wiesbaden hiriko gazteek egindako landa-lan bati esker berreskuratua, 1875ekoa da eta karlistadetan zehar eraiki zuten. Gatazka amaituta, garnizio txiki bat gorde zen bertan 1891. urtera arte. Orduan abandonatu eta inguruko etxeak harriz hornitzeko harrobi modura erabili zen.

Behin aztarna arkeologikoak atzean utzita, ibilbideak zelai batzuk zeharkatzen ditu, non ehunka **LILIPA** (*Narcissus* spp.) delikatuk larreak horiz bez-



titzen baitituzte udaberriaren hasieran. Bidegurutzera iristean eskuinera biratu behar da **UBAKO SARRERARA** **6** arte eramaten duen bide malkartsu batetik jaisteko, gazteen-tzako izen bereko aterpetxetik oso hurbil, eta XIV. mendeko ermitara jaitsiko gara, gaur egun gurtza ortodoxoa hartzen duena.

Osteratxoarekin jarraituz, leunki jaisten dena zona basotsu baten hostotza trinkopean, azkenik begetazio artean irekitako soilgune batera helduko gara. Zona horretan zozoak ugari dira, ustekabea jasota, sarietako orbel eta adarren artetik hegaldian hasten direnak. Bidea paraje eguzkitsuagoetara arte jarraituz, panel didaktiko bat dago, **ZUMAR IBERIKOEN** **7** zuhaizti oso berezi bat adierazten duena. Donostiako Udalak eta Zerynthia Elkarteak bultzatu-

tako prozesu parte-hartzaile batean landatutako zuhaitz horiek grafiosiaren gaixotasu-naren aurrean agertzen duten erresistentziagatik hautatu ziren, *Satyrium W-album* tximeleta berreskuratu ahal izateko, Europa osoan populazioa murrizten ikusten ari den espezie.

Gune horretatik aurrera, bideak gorantz egiten du pixkanaka ekialdera, gertu dagoen San Markos mendia-aren erreferentzia beti begien bistan dugula. Lan-dare-aren artean ezkutuan **PUTZU 8** handi bat dago. Ber-tan **UHANDRE** (*Triturus* spp.) eta **SORGIN—ORRATZ** ugari bizi da. Ibilbideak **KRATER ARTIFIZIA-LEA 9** jarraitzen du zuzenean. Haren barnean lasai har daiteke atseden, nahiz eta haren egiazko funtzioa gauez, hiriko argien oztoporik gabe, zerua behatzea den. Haren barnetik mendirako

xendrari segi behar zaio, hosto handi eta distiratsuko **GEREZI—ERRAMU** (*Prunus lauro-cerasus*) multzo baten albotik igarotzeko.

Tunizeko sarrerara iritsi aurretik, ibilbide zirkularra amaitzen den lekura, ibilbideak aisialdirako espazio ugari zeharkatzen ditu. Lehendabizi, ariketa fisikoa egiteko pres-tatutako zona bat, ondoren, haurren gozameneko enbor eta sare egindako parke harrigarri bat eta, azkenik, **JOLAS—EREMUA 10**, zuhaixken artean sakabanatutako mahai eta bankuekin.





ULIAKO MINTEGIAK

9:00 – 21:30

Eremu hau udal mintegia izan zen 2007 urtera arte. Bertan hiriko parke eta lorategiak hornitzeko landare eta zuhaitzak hazten ziren. Horrek horien banaketa bitxia azaltzen du zapalda eta negutegi zonekin.

Antzina Gipuzkoako plaza ixten zuen burdin hesi irmoak inguratuta, parkeak beherantz egiten du malda leun batetik, non landare mota ezberdinak txandakatzen diren. Zapaldetan tokiko zenbait elkartek barazki eta ortuariak hazten dituzte, eta eremu guztian barna sakabanatuta zuhaitz apaingarri ikusgarrien aniztasun zabala ikus daiteke. Bideek, alboetan lili koloretsuen lore-sailak hazten direlarik, urmaeleko uraren soina bidelagun dela egiten dute aurrera, azkenik aire zabaleko jarduerak egiteko erabiltzen den zelai jendetsu batera iristeko.

Parkearen goialdean Buskando eta Sorobordako depositu zaharrak mantentzen dira oraindik, ingeniariatza hidraulikoaren egiazko bi harribitxi, Añarbeko urtegia eraiki zen arte hiria urez hornitu zutenak.



WC

14.450 m²

DBUS

13

14

24

27

31

SALVADOR ALLENDE

PARKEAK — SALVADOR ALLENDE

Hiriko auzo jendetsuenetako batean egon arren, parke lasai honetan baretasun eta patxada arnasten da. Erdiko eremua, soildua eta belarrizko alfonbra berde batek tapizatua, obalo zabal bat egiten duen pasealeku lau batek inguratzen du. Bertan atseginez atsedean hartzeko bankuak aurki daitezke, elkarren artetik metro gutxiko distantzian. Parkearen bi aldetara elkarren parean hazten diren bi pinu gorri lirainak elkarri beha daudela dirudi, sorgor, solasaldi begetal mutu batean. Hegaletako batean, xarmen lerrokadura bateko hostotzak freskura xuxurlaria ematen du. Beste hegalean, aldiz, banbu masa trinko batek ekialdeko joritasun kutsu bat ematen dio multzoari.

Antzina, egun parkeak hartzen dituen lurretan tiro-zelai bat lekutu zen, Gerra Zibilean matxinatuak hiria hartu ondotik izan ziren fusilamenduen agertoki.





GROS

ULIA

29

MENDIAK — ULIA

Donostiako hiria alboan dagoen Pasaiaiko udale-
rriarekin lotzen duen espazio natural handi bat da, eta
baitaratzen dituen ekosistemen balio handia dela
medio, Natura Sarea 2000 izenekoan barneratzen da.

Itsasora irekitako itsaslabar ikusgarriak zuhaitz masa
trinko eta zelaiguneekin uztartzen dira bertan, bertako
bide sare zabalarari esker disfruta daitekeena. Done
Jakueko iparraldeko bidearen kostaldeko xendra barne.

Goialdean gailur horri hainbat garai historikotan
erabileraren aztarna ugari aurki daitezke. Harkaitz
arrokatuak hura bale ehizarako talaia modura erabili
izanaren lekuko dira, aztarna militar ezberdinak
dagoeneko ahantziak dauden gatazken froga dira,
eta oraindik erraz antzeman daitezke Uliia goi mailako
klaseetako jendearentzat belle époque garaian zehar aisial-
dirako gune kuttun bilakatu zuten elementuak.

Bertako ondare natural eta kulturalaz gain, mendi horrek
Donostiaren ikuspegi paregabeak eskaintzen ditu,
non Urgulleko gailurra, Santa Klara uhartea eta Igeldo
mendia lerrokatu egiten diren eta badirudien erliebe
menditsu bakarrean batzen direla.

Kultura-ekipamendua
ULIA INTERPRETAZIO ZENTROA



318.200 m²

DBUS

13

14

24

27

33

ULIA MENDIA

ULIA MENDIA IGELDO MENDIA IZAN ZENEKOA

Ibilbidea Ulia mendira sar-
tzeke errepidearen amaieran
dagoen aparkaleku nagusitik
abiatzen da. Balizamendu-
rako seinale berde eta zuriei
jarraiki, ia erabat **PAGOZ**
(*Fagus sylvatica*) osatzen den
baso bat zeharkatzen da, **ULIA**
INTERPRETAZIO ZENTRORA ①
iritsi arte, informazioa jaso
eta ingurune horretan egiteko
jardueren proposamenak
eskuratzeko lekua. Bertatik
kostalderanzko norabidea
agertzen duen hori batekin
adierazitako xendra hartu
behar da, Donostiarantz.

Ezkerrera **ERREGEAREN HA-
RRRIA** ② dago, inguratu egin
behar dena gailurrean dagoen
behatokira heltzeko pasabidea
hartzeko. Talaia pribilegiatu
horrek Jaizkibel mendiko itsas-
labarrei so egoteko aukera
ematen du eta, egun oskarbi-
etan, Frantziako kostaldea ikus
daiteke, Bidasoatik harago.

Erregearen Harritik jaistean,
xendra hartu behar da berriro
ASKALDEGIAREN ③ aurreko
soropil zabaletik igarotzeko.
Eraikin horrek ez du beti era-
bilera berdina izan, izan ere,
XX. mendearen hastapenean
Basollua ehiztari eta arrantza-
leen Elkartearen egoitza hartu
zuen, eta aurrean kokatzen
den eremu berdea uso tiroketa
eta, beranduago, plater
tiroketa, egiteko zelaia zen.
Ez zen zonan aisiarako ekipa-
mentu bakarra. Haatik, ja-
danik 1902-1914 bitartean,
belle époque garaian, Ulia men-
dia hiriko aisialdirako gune
nagusia izan zen.

Ibilbidearekin jarraituz,
xendra baso batean sartzen
da. Bertan habitat horretako
ohiko espezieak, **HARITZA**
(*Quercus robur*) edo **AMETZA**
(*Quercus pyrenaica*), kasu, lora-
tegi apaingarrietakoak diren
beste espezie batzuekin



batera bizi dira, esate bate-rako, **IDI—BIHOTZ ARBOLAREKIN** (*Liriodendron tulipifera* L.) edo **LIKIDANBARRAREKIN** (*Liquidambar styraciflua*), Uliak aisialdirako gune modura izan zuen erabileraren lekukoak.

Apur bat aurrerako, **BALEA-ZALEAREN HARRIA** 4 ageri da. Harkaitz horren izendapenak X. edo XII. mendera garamatza. Orduan harkaitz horiek euskal balea (*Eubalaena glacialis*) begiztatzeko talaia modura erabiltzen ziren, umatze garaian Kantauri itsasoan oso ohikoa zen espeziea. Puntu horretan talaia-irakurketa bat pizten zuen kaitik balearen ehizan irteten ziren arrantza-leei abisu emateko. Urte batzuk beranduago, jadanik belle époquen, haitz hori behatoki turistiko modura erabili zen, haren ingurunea bezalaxe.



Xendraren amaieran, herritarren artean errota modura ezagutzen zen oinplano oktogono-iturako dorre deigarri baten aztarnak ageri dira. Berez, egia esatera, eraikin hori **CHALET DE LAS PEÑAS** 5 edo landetxe izena jasotzen zuen jatetxe-kafetegi ikusgarria zen, eta XX. mendearen hastapenean itsasora begira zegoen zurezko terraza jaso handi batek inguratzen zuen.

Gune horretara iritsita, ibilbi-deari hasiera eman zaion aparkalekura arte jaisten den errepide asfaltatu bat hartu behar da. Handik bide bat abiatzen da eskuinera, **ULIAKO GAZTE ATERPETXERA** doan errepidearen albotik, **MAGNOLIO**



(*Magnolia grandiflora*), **GOROSTI** (*Ilex aquifolium*) eta **ITZAL—PLATANODOEN** (*Platanus x hispanica*) lorategi bat gurutzatzen duena, **ITURRI** 6 zaharrera iritsi arte, egun zerbitzuz kanpo.

Puntu horretatik aurrera ibilbideak **DONE JAKUE BIDEAREN** gezi hori bereizgarriei jarraitzen die. Ibar laiotz samar honetan ohikoa da landare exotiko inbaditzaile bat aurkitzea, **SU LANDARE** edo **KROKOSMIA** (*Crococsmia* spp.) izendatzen dena, udan magala kolore laranja bizi deigarri duen lorez betetzen duena. Bisita udazkenean egiten baldin bada, azafrai faltsua (*Crocus nudifolius*) da magala tonu morez zipriztintzen duena.

Xendrak **TRANBIA ELEKTRIKO** 7 zaharraren ibilbidea zen lubakira egiten du zuzenean. Hura izan zen Estatuko lehen-dabiziko tren linea elektri-

fikatua, 1902 urtetik aurrera mendiaren gailurrean kokatutako jolas parkera eta aisialdirako eremura modu erosoan iristeko aukera ematen zuena. Haren trazadura jarraitu behar da, horretarako ezkerrean eginez, ibilbidea erekin jarraitzeko. Bidearen ertzetan garraiobide abangoardiako horren linea elektrikoaren posteak ahokatzeko hormigoizko oinarriak ikus daitezke oraindik.

Zertxobait aurrerako, harrizko pareta txiki bat tranbiak **GERALEKURA** iritsi arte jarraitzen zuen ibilbidea adierazten du, Uliako Gazte Aterpetetik metro gutxira. Metro batzuk aurrera eginez tranbiaren ibilbidearen amaierako geltokia eta **MONTE ULIA** 8 jatetxe dotorea batzen zituzten eskalinata bikoitz arranditsuak ageri dira. Aipatu jatetxearen zimenduak eta beheko



solairuaren egitura mantendu egiten dira oraindik. Pareparean, polikromatutako lauzaren zati bat mantendu da, establezimenduari zerion luxuaren isilpeko lekuko gisa.

Ibilbidearen azken zatia jate txarean aztarnetatik ezkerrean abiatzen den bide laiotz bat hartuz hasten da, zuhaitz masa trinko bat zeharkatuz. Berehala, piknik eremu txikiaren alboan, karratu formako zementuzko bloke handi batzuk ageri dira, **ULIAKO**

AIRE TRANSBORDADOREAREN 9 irteerako geltokiaren egitura ainguratzeko oinarriak dira. Torres Quevedo ingeniariak diseinatutako tramankulu bitxi hori kable euskarridun sistema anitz burutsu baten bidez esekitako metalezko saski bat zen, 18 pertsona har zitzakeena. 280 metroko distantzia egiten zuen 28 metroko desnibela gaindituz,

dorretxo batera iritsi arte, zeinaren hormigoizko habeak oraindik ikusgai baitaude Ulia Interpretazio Zentroaren aldamenean dagoen jolaserako parkean. Hortik aparkalekuan amaitzen den bide nagusia hartu behar da berriro.

URGULL

Neguan Udan
9:00 – 19:00 9:00 – 21:00

Urgull Kontxako badiaren gaineko talaia pribilegiatua da, hiriko paisaia naturalaren eta memoria historikoaren zati ukazina izanik. Sarbidea hiriko puntu ezberdinetatik duen bide sare bati esker muino malkartsu hau estaltzen duten basoetan barna galtzeko aukera dago.

Muinoaren hego magalean hostozabalak ikus daitezke eta Kantauri itsasora irekitako isurialdean pinu, arte eta milazkak. Mendi honetan guztiak haren oinetara hedatzen zen hiria (egungo Alde Zaharra) eta itsas kaia babes- teko gotorleku militarren garaia dakarkigu gogora. Gaur egun iragan militar horren arrasto adierazgarriak mantentzen dira, esate baterako, kanoi zuloen sailak, bastioiak, bolborategiak eta parapetoak, azalera osoan zehar modu estrategikoan banatuta.

Gorenean, Motako gaztelua dago, gaur egun Jesusen Bihotzaren monumentuaren oinarri. Oporraldietan kultura eta ingurumen heziketako jarduerak programatzen dira kokapen ezberdinetan, esate baterako, Natur Txokoa, Historiaren Etxea edo Haurren Liburutegia.

Kultura-ekipamendua
HISTORIAREN ETXEA
HAURREN LIBURUTEGIA
NATUR TXOKOA



IBILBIDE NATURALAK ANTZINAKO GOTORLEKU MILITARREN ARTETIK

Ibilbidea Zuloaga plazatik abiatzen da, 2011 urtean zaharberritu eta handitzeko egin ziren lanetan **SAN TELMO MUSEORA** atxiki zen pabilioi garaikidetik abiatzen diren eskaileretan. Bideak, harrizko lauza higatueta barna egiten du aurrera, eta goranzko bihurgune piko bat egiten du ate txiki batekin **BEHATOKIKO BATERIARA** **1** iritsi arte, Motako gazte-luarekin batera, Urgulleko gotorleku boteretsuena dena. XVIII. mendearen lehen laurdenean eraikitako bastioi horrek hiriko ekialdeko murruko ingurumariak mende hartzeko aukera ematen zuen eta berau itsasotik egiten ziren erasoan aurrean babestekoa. Puntu horretatik Urumearen itsasoratzearen eta Zurriolako hondartzaren ikuspegi zoragarriak daude, Ulia mendia hondoan dela.

Gotorlekua atzean utzi ondotik, bideak aurrera egiten du leunki mendiaren magaletik. Ezkerrera, zona laiotzenezan, hosto osoko garo ezohiko bat dago, orein-mihi (*Phyllitis scolopendrium*) izenez ezagutzen dena. Iberiar Penintsulako garo gehienekin gertatzen denaren aurka, hostoetan ez dira dibi-sio bereizgarriak ageri, baizik eta lantza forma dute eta ongi ikus daitekeen erdiko nerbio batek zeharkatzen ditu.

Ibilbideak **INGELESEN HILERRIA** **2** iritsi arte egiten du aurrera. Misterio kutsu batek inguratzen duen lekua da, non landare hesi, metalezko atetxo eta harkaitzen artean hileta monumentu ugari agertzen baitira magalean barna sakabanatuta. 1813an hiria hartu zenean eroriak oroitzeko plaka bat duen arren, egiaz hilerri hau Lehen Karlistadan hildako militar



britainiarrak hartzeko eraiki zen. Leku bitxi honetan hilobi eta mausoleoak ageri dira soldaduak, katolikoak ez izaki, ezin zirelako hiriko hilerrian lurperatu. Horregatik, beste leku bat bilatu behar izan zitzaien.

Ibilbideak xendra nagusitik jarraitzen du. Mendiaren iparraldea bereziki hostotsua da. Beraz, ohikoa da **HAITZ USOAK** (*Columba livia*), **ZOZO ARRUNTAK** (*Turdus merula*) eta **BIRIGARROAK** (*Turdus* spp.) ikustea, adarren artean gerizpe bila etortzen direnak. Aurrera jarraituz, ibilbidea bidearen bi aldetara clauden **LIZAR** ③ (*Fraxinus excelsior*) eta **INTSUSA** ④ (*Sambucus nigra*) ugariren albotik igarotzen da.

Eskuinera, xendra estu bat sigi-sagan jaisten da, bidean itsasori so atsedean hartzeko aproposak diren bankuz



hornitutako behatoki zenbait bilduz. Ibilbideari berrekinez, bideak **ITSAS PINUEN** (*Pinus pinaster*) zuhaitzi bat zeharkatzen du Santiagoko Bateriara iristeko. Bertan ezkerreara egiten du bortizki **NAPOLÉONEN BATERIARA** ⑤ bideratze-ko, zenbait metro aurrerago dagoena. Gotorleku hau okupazio frantziarrean eraiki zen, Independentzia Gerran (1808-1813) eta bertara iristeko lau angeluko oinplanoa duen guardiako gorputz txiki bat zeharkatu behar da. Magalean, berriro hegoaldera

begira, landaredian berriro hostozabalen espezieak dira nagusi, esate baterako, **EZKIAK** (*Tilia* spp.), **ASTIGAR ZURIAK** (*Acer pseudoplatanus*), **ZUMARRAK** (*Ulmus* spp.) eta **HARITZAK** (*Quercus robur*).

MOTAKO GURUTZE SANTUAREN

GAZTELURA ⑥ iparraldeko sarreran clauden eskailere-tatik irits daiteke, zeintzuen alboan **ASTIGAR ZURI** (*Acer pseudoplatanus*) eder bat hazten baita. Bastioia jatorriz erdi arokoa bada ere, lehen begi kolpean garai horretako ezer gutxi antzeman daiteke, egungo eraikuntzaren zatirik handiena XIX. mendearen erdialdekoa baita. Gazteluaren horma-bularraren gainean, 1950ean **JESUSEN BIHOTZAREN** ⑦ monumentua paratu zen, Donostiako egungo paisaiaren elementu bereizgarrietako bat. 16 metroko altuera duen piramide moztu batez

eratzen da, barnean kapera txiki bat duena, eta haren gainean 12,5 metroko altuera duen estatua dago, hormigoi armatuzkoa. Haren inguruan dago **HISTORIAREN ETXEA**, XVIII. mendeko kuartel zahar bat okupatuz.

Erdiko eraikina inguratuz, galtzada harrizko atzealdeko bide batek **GOBERNADOREAREN GOIKO BATERIARA** egiten du. Bertatik Alde Zaharraren eta hiriko Erdialdearen ikuspegiak zoragarriak dira. Apur bat aurrerago, **GOBERNADOREAREN BEHEKO BATERIAN** 1866ko eraikin txiki bat dago, baterian zerbitzu ematen zuen guardiako gorputza hartzen zuena. Gaur egun **NATUR TXOKOA** ⑧ dago bertan, eskolako oporraldietan irekitako ekipamendua, etxeko txikieneztat ingurumen heziketako doaneko jarduerak eskainiz.

Bidean zenbait metro atzera egin behar da, gezileihoz hornitutako hormaren parealean, zuzenean **INGELESEN HILERRIRA 2** jaisten den errepede malkartsu estu bat hartzeko eskuinera eginez. Hura zeharkatzean garoz beteriko hezegune batera igaroko da, egunean zehar ezkutatzen diren **ARRABIOEN-TZAT** (*Salamandra salamandra*) habitat ideala. Arraroa da gauez ibil-tzea ohitura duen kolore beltz eta hori biziko anfibio honen presentzia Urgullen, ur masak behar baititu ugalketarako. Horrenbestez, badirudi, nolabait, egokitu egin dela kumeak zeharo garatuta erditzeko urik egon ez arren.

Soldadu britainiarren ome-nezko hileta monumentua atzean utzita, bideak sigisagan jarraitzen du behe-



rantz egiten duen bitartean. Mendiaren ipar magal horretan, pinuen alboan, ugariak dira **MILAZKAK** (*Tamarix gallica*). Zuhaixa espezie hori modu naturalean hazten da euskal kostaldeko hareatza, itsas-labar eta itsas ingurunetan, haizearen aurka ageri duen erresistentziari eta gatz kontzentrazio handiari esker. Ahalmen horri esker, hiriko lorategi ugartan ere landatu da, esate baterako, Alderdi Ederren edo Kontxako pasea-lekuan, non “tamarindoa” gisa ezagutu ohi den.


Osteratxoarekin jarraituz modu erosoan heltzen da **BARDOKEN BATERIARA 9**. Donostiako kaia kaltetu asmoz zebilen edozein itsasontziri tiro egiteko kainoi-leku modura eraikia. Itsasoaren eraginpean dagoen eremua da erabat eta, horrenbestez, bertan hazten den landaredia bereziki egokitua dago etengabeko brisara eta gazitasun handira. Sarri aurki daitezke **ITSAS PLANTAINA** (*Plantago maritima*), **ZAURI BELARRA** (*Anthyllis vulneraria*) edo **EUSKAL ARMERIA** (*Armeria euscadiensis*). Azken hori Urgull mendiarekin lotura estua duen landare bat da, izan ere, hain justu bertan aurkitu zuten izen hori eman zioten botaniko frantziarrek. Euskal kostaldeko aredun itsaslabarretan eratzen diren zelaietan soilik dagoen espezie endemiko bat da, beraz landare babestua da.



10

Ibilbidea arrapala batetik **PASEO BERRIRA** arte jaitsita amaitzen da. Urgull mendiaren ipar magala inguratzen duen galtzada hori 1917–1919 bitartean eraiki zuten eta neurri handi batean hirian zeuden kasino ugarietako jokoaren ondoriozko irabaziekin finantzatu zen. Gaur egun, hiriko gune ezagunenetakoa da, izan ere, badiaren eta irlaren ikuspegi zoragarriekin gozatzeko aukera emateaz gain, batez ere ilunabarrean, denboraleetan olatu izugarriek harkaitzak nola kolpatzen dituzten ikusteko erakarpina du.

Ibilbidea Jorge Oteiza artistak egindako **ERAIKUNTZA HUTSA** 10 eskulturaren parean amaitzen da. Artelan hori Sao Pauloko Biurtekoan saritua izan zen 1957an. Bere kokalekutik, so-lasaldi etengabea ari da 1976an badiaren bestaldean kokatutako Eduardo Chillidaren **HAIZEAREN ORRAZIAREKIN** eta 2021az geroztik Santa Klara uharteko itsasargian dagoen Cristina Iglesiasen **HONDALEA** artelanarekin.



ALBERICH, E. (1954)
LAS SEQUOIAS DE AYETE.

Munibe. zbkia. 6
47–49 orr.

DE VICENTE DE VIANA, J.G. (2009)
**PARQUE KRISTINA ENEA —
GLADYS. HISTORIA —
FLORA — FAUNA.**

Haritzalde Natur Elkartea.
687 orr.

LARRAÑAGA URAIN, F.J. (2004)
**JARDINES PROYECTADOS Y
LLEVADOS A CABO POR LA
FAMILIA DE LA PEÑA DUCASSE
(1909–1946).**

Boletín de estudios históricos
sobre San Sebastián. zbkia. 38
737–745 orr.

LARRAÑAGA URAIN, F.J. (2007)
**LA PROTECCIÓN DE LOS
JARDINES HISTÓRICOS. EL JARDÍN
DEL PALACIO DE AYETE EN SAN
SEBASTIÁN.**

AKOBE
Conservación–Restauración. zbkia. 6.
81–84 orr.

LARRAÑAGA URAIN, F.J. (2019)
**JARDINES Y PARQUES DE
GIPUZKOA. HISTORIA, TRAZADO
Y ESTILO.**

Gipuzkoako Foru Aldundia.
454 orr.

MARTÍNEZ CORRECHER Y
GIL, C. (2006)
**EL JARDÍN HISTÓRICO EN LA
SOCIEDAD ACTUAL. EL JARDÍN
DEL PALACIO DE AYETE EN SAN
SEBASTIÁN. EN: APROXIMACIÓN A
LA GESTIÓN DE LA JARDINERÍA
HISTÓRICA.**

Asociación Española de Parques y
Jardines Públicos.
9 orr.

MUÑOZ ECHABEGUREN, F. (2009)
**SAN SEBASTIÁN, EL MONTE ULIA Y
ARENALES, AYER Y HOY.**

Kutxaren Gizarte Ekintza.
359 orr.

MUÑOZ ECHABEGUREN, F. (2012)
**SAN SEBASTIÁN. PALACIOS,
PARQUES Y JARDINES.**

Kutxaren Gizarte Ekintza.
196 orr.

OTAMENDI, J. (1907)
**LA COLUMNA METEOROLÓGICA–
ASTRONÓMICA DE LA PLAZA
DE GUIPÚZKOA. EN: COSAS DE
SAN SEBASTIÁN.**

Imprenta Alemana.
5–13 orr.

OTAMENDI, J. (1907)
**EL CAÑONCITO DE LA PLAZA
DE GUIPÚZKOA. EN: COSAS DE
SAN SEBASTIÁN.**

Imprenta Alemana.
14–16 orr.

OTAMENDI, J. (1907)
**EXPLICACIÓN DEL CUADRO
GEOGRÁFICO Y ESTADÍSTICO DE
LA PLAZA DE GUIPÚZKOA. EN:
COSAS DE SAN SEBASTIÁN.**

Imprenta Alemana.
16–17 orr.

PEÑA IBAÑEZ, J.M. (1999)
DEL SAN SEBASTIÁN QUE FUE.

Banco Guipuzcoano.
434 orr.

SÁEZ GARCÍA, J.A. (2020)
**LAS FORTIFICACIONES
DEL MONTE URGULL
(SAN SEBASTIÁN).**

GUÍA PARA PERDERSE.
INGEBA.
313 orr.

SÁEZ GARCÍA, J.A.,
SAN MILLÁN VERGÉ, M.D.,
IBÁÑEZ ARTICA, M. ETA
GÓMEZ PIÑEIRO, F.J. (1995)
EL PARQUE DE CRISTINA–Enea.
Donostiako Udala.
56 orr.

SOLA BUENO, A. ETA
ALTUNA URDÍN, I. (1999)
EL PARQUE DE AYETE.
Donostiako Udala.
65 orr.

VV.AA. (2005)
EL JARDÍN DE LA MEMORIA.
Donostiako Udala.
48 orr.

ARGITARATZAILEA

Donostiako Udala
Cristina Enea Fundazioa

KONTZEPTUALIZAZIOA

Jose M^o Hernández
Itxaso Mezzacasa

TESTUAK

Jose M^o Hernández

NATURA-AHOLKULARITZA

Oihana Orkolaga
Asier Goia

DISEINUA ETA ARTE-ZUZENDARITZA

Itxaso Mezzacasa

ARGAZKIAK

Alex Iturralde
Xabi Ubeda
Donostia San Sebastián Turismoa

INPRIMATZAILEA

Artes Gráficas Lorea, S.L.

INPRIMAKETA

300 ale

ISBN

978-84-09-31671-7

PREZIOA

10€

ISBN 978-84-09-31671-7



9 788409 316717

Donostiako Berdeak ideia printzipal bat ekarri nahi du: zenbat balio duten Donostiak dituen berdeguneek hiri-bilbeak bata bestearekin josteko, eta halako metabolismo askotariko bat eratu eta neurri eta zentzu humanoa emateko hiriari. Gida honen helburua, beraz, Donostiako Berdea osatzen duten lorategiak, parkeak eta hiri-eremu naturalak gerturatzea da, eskaintzen dituen zerbitzuen, ingurumen balioen eta kultura eta ondare elementuen gaineko informazio praktikoa eskainiz. Hala, oso deskribapen atseginak, ibilbide gidatu ederrak eta kalitate handiko argazkiak ditu gidak, eta horiei esker, Donostiako Berde harrigarri bat azalduko digu gure aurrera. Ea gure zentzumenak hunkitzeko gauza den!



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN